

híruka

Udako berezia 185. zenbakia
2022ko uda



UDAKO JAIK

Bueltan etorri dira!

Alex
ORBE
2022

UZTAILA-IRAILA

DANTZA



AURREZ AURRE DANTZAN
XABI ABURRUZAGA
ITXAS ARGIA DANTZA TALDEA

UZTAILAK 17 IGANDEA 20:00 / 12€

ANTZERKIA



BOST MINUTUN
ANDONI AGIRREGOMEZKORTA
ITZIAR URRETABIZKAIA

UZTAILAK 28 OSTEGUNA 20:00 / 12€

MUSIKA



GUDA DANTZA

IRAILAK 02 OSTIRALA 21:00 / 5€

MUSIKA



MIGUEL SALVADOR PROJECT

IRAILAK 09 OSTIRALA 21:00 / 8€

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Alex Orbe eta Uribe Kostako mugimendu feministako hainbat kide

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Zuokaz, geugaz, berriro ere

Erakunde laguntzaileak



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurten, bai. Urte biko itxaronaldiaren ondoren bueltatu dira udako jaiak gure herri, auzo eta kaleetara, normaltasun osoz. Pandemiak utzitako lehorreak festen uholde batek kala-kalata utziko ditu gure bazterrak, eta, horregaz batera, urteotan guztioan ezin ikusitakoakaz bildu ahal-ko gara berriro ere, jairik jai. Festen ekosistema bueltan da!


Hala ere, ezin atzean utzi ospakizunoz gozatzerik izango ez dutenak, bidean galdutakoak, ezta ahaztu ere jai guztiok posible egiten dituzten gizon-emakume eta jai-batzorde denak ere. Biba zuek! Azken horiek,

urteotako hutsunea betetzeko eta ospakizunok berreskuratzeko aha-lerin izugarriak egin behar izan dituzte hilabeteotan, etorkizunak zer ekar dezakeenagaz zalantzez beteta; eta, hurrengo orriotan ikusi ahal-ko duzuenek, badira lerrook idazterako egitarauak garaiz finkatzerik izan ez dituztenak, izan udalen trabengatik, izan jende faltagatik, besteak beste. Halere, ez izan zalantzarik, jaiak egon egongo dira, eta horien berri emango dizuegu HIRUKA komunikazio-taldeko kanal guztietan.

Elkar festan, kalean, auzoetan ikusiko dugulakoan... Jai zoriontsu, adeitsu eta osasuntsuak izan ditzazuela.

Ondo pasa eta goza ezazue!!!

Uribe Kosta jaietan



Orriotan topatuko dituzun hainbat egitarau behin-behinekoak dira, beraz, kode hau eskaneatuz gero informazioa gaurkotuta izango duzu. Gainera, bertan, herri eta auzoetako jaien informazio gehigarria, argazki-galeriak eta bideoak ere topatuko dituzu.

►	HIRUKA udako lehiaketa	
	NEKATUR-EN ASTEBURU PASA JOKOAN	6
►	Bertsolaritza	
	UDAKO BERTSO-SAIOEN AGENDA	49
►	Eraso matxistarik ez!	
	URIBE KOSTAKO MUGIMENDU FEMINISTA	52-53
►	Sukaldean	
	TXAPELKETETARAKO HAINBAT ERREZETA	54-55
►	HIRUKIRA Olgetan	
	UMEEI BEGIRAKO DENBORA-PASAK	56-59

Herriko jaien egitarauak

►	Berango	
	Uztailak 24-26	
	SANTA ANA JAIAK	20
	Abuztuak 4-7	
	SANTO DOMINGO JAIAK	33
	Abuztuak 12	
	BAKAILAO JAI HERRIKOIA	33
►	Erandio	
	Uztailak 8-10	
	SAN KRISTOBAL JAIAK Goierri	8
	Uztailak 15-17	
	ASUAKO JAIAK	13
	Abuztuak 14 eta 15	
	ANDRAMARIAK Erandiogoikoa	32
	Abuztuak 5-10	
	SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua	36
	Abuztuak 17 eta 18	
	SANTIMAMIKO JAIAK	42
	Abuztuak 24-28	
	SAN AGUSTIN JAIAK Alzaga	44-45
►	Getxo	
	KALEFEST	7
	Uztailak 22-24	
	NAZIOARTEKO 37. FOLKLORE JAIALDIA	18
	Uztailak 22-24	
	SANTA ANA JAIAK Areeta	21
	Uztailak 24	
	AIXERROTAKO PAELLA-EGUNA	24-25
	Uztailak 28-31	
	SAN INAZIO JAIAK Algorta	26-29
	Uztailak 31-Abuztuak 7	
	ITZUBALTZETA/ROMOKO JAIAK	30-31
	Abuztuak 10	
	SAN LORENTZO AZOKA Algorta	37
	Abuztuak 10-14	
	PORTU ZAHARREKO JAIAK	38-40

►	Gorliz	
	Uztailak 22-26	
	SANTIAGO JAIAK	22-23
	Abuztuak 5-7	
	ANDRAMARIAK	32
	Abuztuak 10	
	SAN LORENTZO EGUNA	37
	Abuztuak 20	
	UREZARANTZAKO JAIAK	43
►	Leioa	
	Uztailak 31 - abuztuak 7	
	PINUETAKO JAIAK	30-31
	Abuztuak 17 eta 18	
	SANTIMAMIKO JAIAK	42
	Abuztuak 24-28	
	SAN BARTOLOME JAIAK	42
►	Lemoiz	
	Uztailak 13-16	
	KARMEN JAIAK Armintza	10-12
	Abuztuak 12-16	
	ANDRAMARIAK Urizar	34
►	Plentzia	
	Uztailak 9-10	
	SAN KRISTOBAL JAIAK Txipio	8
	Uztailak 15-17	
	KARMEN JAIAK	16
	Uztailak 21-22	
	MADALENAK	16
	Uztailak 29	
	SARATXAGAKO JAIAK	16
	Uztailak 31	
	SAN INAZIO JAIAK	16
	Uztailean zehar	
	HISTORIAN MURGILTZEKO JARDUNALDIAK	19
	Abuztuak 31 - irailak 4	
	SAN ANTOLIN JAIAK	46-47
►	Sopela	
	Uztailak 14-17	
	KARMEN JAIAK Larrabasterra	14-15
	Uztailak 20	
	SANTA MARINA EGUNA	17
	Uztailak 22	
	FOLKLORE BIZIAN JAIALDIA	18
►	Urduliz	
	Uztailak 9	
	RABU EGUNA	9
	Uztailak 20, 22 eta 30	
	SANTA MARIÑEKO JAIAK	21
	Irailak 7-24	
	ANDRA MARIKO JAIAK	50-51

Udako Zozketa!



* *Jarriozu izenburua argazki honi*

* Zozketa finalisten artean **NEKATUR**

Bi pertsonentzako gau biko egonaldi bat **NEKATUR** nekazal turismo elkarteak ostatueta, logela edo apartamentuetan. Egondia behe denboraldian egin beharko da, asteen zein aste-akabuan.

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailaren 1a (eguna) baino lehen jarriozu izena goiko argazkiari **HIRUKA.EUS** webgunean jarritako atal berezian, edo ondoko QRra bideratuko zaituen helbidera.

*HIRUKA lagunek lehentasuna izango dute, beraz, aukera bikoitza izango dute zozketan saria irabazteko.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Getxo Irantzu Uriarte: Kalefest

«Konpainia euskaldunen alde egin genuen egitaraua osatzerakoan»

ANDER ZARRAGA ▶

Uda honetan, euskarazko kaleko arteen jaialdi berri bat egongo da Getxon. Herritarrek iazko aurrekontu parte hartzaileetan egindako eskaeretatik abiatuta, Getxoko Udalak Kalefest jaialdia aurkeztu zuen maiatzean, eta, urrira bitartean, hainbat eratako 29 ikuskizun kaleratuko dituzte. Ekimenari buruz gehiago jakiteko Irantzu Uriarte Euskara zinegotzia eta Getxo Kultur Etxeko lehendakariagaz egon gara.

Getxori kaleko arte eszenikoen jaialdi bat falta zitzaion? Badago Kale Antzerkia Bultzatuz familia osoarentzako jaialdia; aurten, urriaren 7tik 12ra izango da, eta musika, antzerkia, dantza eta zirkua eskainiko doguz kalean bertan. Horretaz gain, aipatu beharra dago jazz eta folk jaialdien doako programazioa aire zabalean ere egingo dela, Kultur Etxeko beste programa batzuk ahaztu gabe. Kalefesti dagokionez, herritarrek beren-beregi ez dute eskatu arte eszenikoen jaialdi baten beharrezana, baizik eta kaleko ekitaldiak antolatzea, gazteei zuzendutako ikuskizunak eskaintzea eta euskarazko kultura sustatzea. Hiru ardatz horiek uztartzen dituen programa antolatu dogu.

Nolakoa ari da izaten da publikoaren erantzuna? Momentuz, apurka-apurka doa, eguraldiak baimentzen deuskun neurrian, azken asteotan ez dogu lagun eduki-eta. Jaialdiak urrira arte iraungo dau, beraz, ez da behin betiko ondorioak ateratzeko momentua. Hala ere, hurbildu diranak, publikoa, konpainiak eta artistak oso gustura egon dirala jakinarazi deuskue, eta eskertzen dabezela holango proposamenak Getxon egotea.

Nolakoa izan da lehen jaialdiaren planteamendua? Maiatzaren azken asteburuan hasi eta urriaren 15ean eukiko dogu azken ekitaldia. Planteamendua, izatez, eguraldia lagun, Kultur Etxearen ohiko programazioa kaleko ikuskizunekin osatzea zan. Esate baterako, uztailaren 8an zirkua izango dogu Areetako Eskoletako plazan, eta horretaz gain, uztailaren zinema izango dogu hainbat lekutan. Helburuetaz bagabilz, orain arte azaldutakoari beste irizpide bi gehitu beharko geun-



Uriarte Getxoko Udaleko Euskara zinegotzia eta Getxo Kultur Etxeko lehendakaria da.

Urrira bitarteko egitarau oparoa

«Egitarau osoa eskuragarri dago Getxoko webgunean, eta Getxoko Kultur Etxeko sare sozialetan be ekimenen datak heltzen doazen heinean barri emoten dogu. Abuztuan, Kalefestek hilabeteko etenaldia egingo dau ia auzo guztietan jaia izango diralako eta horiek izango direlako protagonistak. Irailean eta urrian, aldiz, danatarik edukiko dogu: dantza, antzerkia, zinema...»

tsazan: diziplina artistikoen aniztasuna sustatzea (dantza, antzerkia, zirkua, zinema...) eta kultur programaziorik egunerokatasunean ez daukien lekuak kultur gune barriak sortzea.

Zein motatako ikuskizunak eta artistak aukeratu dituzue? Jaialdiaren ildo nagusietako bat, herritarrengatik hala jasota, kultura euskararen arnagune bezala ulertzea zan, horregatik, Kalefesten egitaraua osatzeko orduan konpainia euskaldunen alde egin genuen. EAE osoko konpainiak edukiko doguz gure artean, tartean, artista eta sektore kulturalako getxoztarrak be, esaterako, Iñigo Iraultzaren *Rotonda Circus* edo Ines Bermejoren *Ertza*... Bestetik, gazteen kezka eta jakinminei erantzun diezaieketen obrak hautatzea izan da irizpideetako bat, arte eszenikoen diziplina oro batuz: dantza, antzerkia, zirkua...

Geratzeko etorri da Kalefest? 2021eko parte-hartze izaerako aurrekontuetatik ateratako kultur egitasmoa dogu Kalefest. Getxoko Kultur Etxetik eskerrak emon gura deusagu getxoztarrei kultura, kaleko bizitza eta aisialdia berpiztu eta euskararen erabilera sustatzeko katalizatzailea izan daitekeelakoan adieraztegitik. Edozelan ere, Kalefest edo bestelako egitasmoetan, Kultur Etxetik, zerbitzu publiko izanda, herritarren proposamenei aktiboki entzuten jarraituko dogu. ◀

Ikusi Kalefest jaialdiko egitarau osoa, hemen:



Plentzia San Kristobal jaiak

Txipion ere, dantzan

**San Juan suagaz udari
ondoetorria egin ondoren,
Txipio auzokoak izango dira
udalerriko jaien lekukoa
hartzen lehenak, uztailaren
9an eta 10ean.**

Urte biko jai-lehorte baten ondoren, festen uholdeak itsasadarrean gora egin eta Plentziako auzo denak ziprztinduko ditu herritarrak dantzan eta algaran ipintzeko. Hala, Txipion hartuko dute auzoz auzo ibiliko diren jaien lekukoa, uztailaren 9an eta 10ean. Egun horietan, auzokideak dantzan arituko dira San Kristobalen omenez, urtero egin duten legez. Era berean, adin guztientzako hamaika jarduera izango dituzte aukeran, hala nola disko-festa, zezensuzkoa eta erromeria. Mokaduren bat hartzeko tarteak izango dute ere, taloa txorizoagaz banatuko baitute. ◀

Uztailak 9-10



Uztailak 9, zapatua

20:00 Disko-festa.

22:00 Zezensuzkoa.

Uztailak 10, domeka

11:00 Txupinaren jaurtiketa.

11:00 Kristobal Deunari aureskua eta lore eskaintza.

18:00 Umeentzako tailerrak.

20:00 Taloa txorizoagaz.

20:00 Kantujira eta erromeria Gatzamiñetik, Plentzia Kantagunearen eskutik.

21:30 Zezensuzkoa.

Erendio San Kristobal jaiak

Goierriren txanda da

**Erandioko jairik landatarrena
ospatuko dute Goierriko
Madalena auzoan, San
Kristobal Landa baselizaren
inguruan, uztailaren 8tik
10era bitartean.**

Erandioko hirigunetatik urrun eta baserriz inguratuta, Goierri da seguruenik udalerriko auzorik landatarrena, eta bertako San Kristobal baselizaren festak ere halakoak izan beharko dira.

Uztailaren 10ean, San Kristobal Egunean, ospatuko dute bertako egun handia, baina festak hilaren 8an hasiko dituzte, Iberretik San Kristobalera herriko umeek egin ohi duten igoeragaz. Horretaz gain, egun horretan, txinbera-lehiaketa ere egiten dute, eta, hurrengoetan, Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa eta asto-probak ere egingo dituzte, besteak beste. ◀

Uztailaren 8tik 10era

Uztailak 8, barikua

18:30 Umeen igoera Iberresetik San Kristobalera eta Goierriko Madalena auzoko jaien hasiera.

19:00 Jagoba Bilbaoren omenezko XV. Txinbera Lehiaketa.

Uztailak, 9 zapatua

18:00 Puzgarriak egun osoan egongo dira, iluntzera arte.

17:00 Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa 560 kilogramo: Goierri, Akelarre, Gaztedi A eta Gaztedi B. Sokatira ostean, saiheski-jana dohainik Goierriko Sokatira taldeak eta jai-batzordeak antolatuta.

23:00 Gaupasa: Leihan eta Show Party.

02:00 Bingo-lehiaketa



Uztailak 10, domeka

12:30 Meza

13:00 Hamaiketako auzoko nagusientzat

13:00 Dantzak Goialde taldeagaz.

18:00 Olgetan Solas, familia guztiarentzako jolasak.

18:30 Asto-probak

21:00 Jaien amaiera.

URDULIZ Rabu txapelketa

Urdulizko jairik gosegarriena bueltan da

Aurten Urdulizko 54. Rabu lehiaketa egingo dute uztailaren 9an. Bi urteren ostean, hain berezia den eguna Santa Maria elizaren ondoko landara bueltatuko da.

Jabi Otegi urduliztarrek umetatik darama Urdulizko buztan egosiaren festako lapikoen artean murgilduta. Gaur egun, antolakuntza-lanetan dabil bera, eta duela 54 urte ospatzen hasi ziren jaiegun gosegarri horren jatorria horrela jaio zela diosku: «Inguruko herriek bazeuzkaten beraien gastronomia-jaiak: Aixerrota, paellak; Mungian, sukalkia; eta Berangon, bakailaoa. Hori ikusita, Txori Alai kultur elkarteko lagun-talde batek erabaki zuten rabu sariketa ere egitea Urdulizen». Hori duela mende erdi baino gehiago izan zen, eta, gaur egun, ohiturak bizi-bizi jarraitzen du; herriko jaiegun ospetsuenetako bat da urduliztarrentzat.

Herriko jende gaztea eta ez hain gaztearentzako «instituzio bat» dela dio Otegik, eta urtez urte kuadrilla gehiagok parte hartzen du: «Akabuan, adin bateko jendea topatzen gara, aspaldi ikusi bako lagunak, kanpotik ere jende asko etortzen da, eta giroa ederra izaten da». Jaiegunak izenean txapelketaren izaera islatzen badu ere, helburua ez da lehiatzea, «elkarregaz ondo pasatzea da; horregatik, hainbat sari ematen ditugu: gazteenei, parte hartzaileenei, alferrenei... Herriko jai bat denez, eta helburua ederto pasatzea denez, guztientzako egongo da sariren bat».

Aurtengo berritasun gisa, Otegik diosku Burrunba Elektrotxaranga eramango dutela arratsaldean ere giro alaiak jarrai dezan: «Gazte gehiago etortzera animatu nahi ditugu, horretarako, txaranga bat ekarriko dugu, baina gainontzeko egitarauak berdina izaten jarraituko du».

Parte-hartzaile kopuruaren aurreikuspenak egitea zaila dela dio antolatzaileak, baina aurreko urte bietan ez dutenez egin, aurten, jendea gogotsu egongo dela uste du; horregatik, 60 lapikotik gora aurkeztuko direla aurreikusten du. ◀



Txori Alai kultur elkarateak antolatzen du txapelketa. URDULIZKO UDALA

Ez da lehiaketa profesionala, herriko jai bat da urduliztarrentzat eta kuadrillen artean ondo pasatzeko; helburua giro polita egitea da, horregatik denentzako egongo dira sariak, batez ere, parte hartzaileenentzako.

Egitaraua

Uztailak 9, zapatua

- 07:30** Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 09:00** Txistulariak herriko kaleetatik eta Rabu txapelketan izena emateko epearen irekiera.
- 12:30** Iratxo Gorria dantza taldearen ekitaldia eta goizean zehar trikitilariak egongo dira inguruak girotzen.
- 12:45** Lehiaketan izena emateko epearen amaiera.
- 13:30** Kazolen aurkezpena eta epai-mahaiaren xede-hartzea.
- 14:45** Kazolak aurkezteko epearen amaiera.
- 17:30** partaideen artean sari-banaketa eta jaiaren amaiera. Eguna ederto bukatzeko, Burrunba Elektrotxarangaren eskutik emanaldia egongo da

Lemoiz Karmenak

Txonbo egitera datoz



Heldu da eguna! Auzokideei horren luze egin zaien atzerako kontaketa amaitu eta bueltan dira Karmen jaiak Armintzara! Zein izango da, baina, aurtengo egitaraua?

Ezohiko uda biren ondoren, karmenak bueltatuko dira Armintzako portura eta inguruetara uztailaren bigarren hamabostaldian. Izan ere, jai-batzordeak erronkari gogotsu heldu eta ohiko egitarau paregabea berreskuratuko du uztailaren 13tik 16ra bitarterako. Hala, triatlota, umeentzako jolasak, moztorro desfilea eta, nola ez, Txapel Reggae jaialdia egongo dira gozagai. Gainera, nola ez, inolako euskal jaietan baztertu ezin daitezkeen ekitaldi gastronomikoak egongo dira; izan ere, besteak beste vermuthik onena nork egingo duen jakiteko lehiaketa egingo dute uztailaren 15ean, eta, zintzurak bustitzeagaz batera, tripak asetzeko mokadu-janak egingo dituzte, hala nola otarrainxka-jan tradizionala eta sardinen dastatzeak.

Aurten, urtero legez, plastikoen erabilera gutxitzeko saiakerak egingo dituzte jai batzordeko kideek, eta, horretarako, Armintzako portura karmenetaz gozatzeraz etorriko diren guztiei ingurumenarekiko konpromiso minimoa ere eskatu dute. Goza ezazue! ◀

Uztailaren 13tik 16ra

Uztailak 13, eguaztena

- 18:00** Txupinazoa eta pregoiaren irakurketa.
- 18:30** Umeen eta helduen triatlota.
- 20:00** Bertso-triki poteoa.
- 22:00** Otarrainxka-jana, txosnan.
- 23:00** Kontzertua.

Uztailak 14, eguena

- 12:00** Umeentzako jolasak.
- 17:00** Bits-festa.
- 18:00** Puzgarriak.
- 18:30** Armintza Paleta Txapelketako finala.
- 21:30** Bafle-poteoa.
- 22:00** Pintxo-morunoen jana.

Uztailak 15, barikua

- 12:00** Umeentzako tailerrak.
- 13:00** Vermouth lehiaketaren hasiera, eta pala partiduak.
- 18:30** Moztorro desfilea izena emateko azken ordua, txosnan. Gaia: librea.
- 21:00** Moztorroren desfilea.
- 22:30** Erromeria: AltxaPorru.

Uztailak 16, zapatua

- 12:00** Buruhandiak.
- 12:00** Rasta-poteoa; ondoren, Ragga Cooping.
- 13:00** Dancehall ikastaroa.
- Arrastian zehar** Karmengo Amabirjinaren omenezko meza. Ondoren, itsasora prozesioa, kukaña eta sardina-jana.
- 22:00** Txapel Reggae kontzertuak.

farmacia
Lcda. Paula González Pérez

946 879 341
farmacia.armintza@gmail.com
Portubidea, 7 48620 ARMINTZA

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitetz gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus



Bueltan da Txapel Reggae

Jamaikako doinu dantzagarrienak Armintzara bueltatuko dira uztailaren 16an. Aurten, euskal reggaearen aldeko apustua egin dute, eta bertoko bandak izango dira nagusi. Hala ere, ohi legez, nazioartekoak ere gonbidatuko dituzte, Jamaikatik eta Frantziatik etorriko direnak.

Aurten ere, musika jamaikarra ardatz duen jaialdia hartuko dute Armintzako Karmengo jaiek beren azkenengo egunean: Txapel Reggae. 2022ko jaialdiak Euskal Herriko bost herrialdeetatik etorritako bandak taularatuko ditu; gainera, Rod Taylor artista jamaikarra eta Heartical frantziarra gonbidatuko ditu nazioarteko eszenari jarraitasuna emateko. Era berean, Dub Stage-agaz osatuko dute programa; horretan, sound system, rap eta beste jarduera batzuetako euskal proposamenak izango dira nagusi, guzti-guztia doan.

2022 honetan ere, aurreko edizioetan egin izan duten bezala, ingurumenaren aldeko aldarriak ardatz hartuta, eta Lemoiz Natura taldeagaz batera, plastikoa murriztea, birziklatzea eta itsasoa zein zorua garbi mantentzea gogoratuko zaie parte hartzaileei, besteak beste. ◀

4

proposamen eskainiko dituzte Dub Stage gunean. Horien artean, rap eta beste jarduera batzuetako euskal proposamenak izango dira nagusi.

5

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Zuberoako musika-taldeak arituko dira jaialdian.

Egitaraua

Uztailak 16, zapatua

- 12:00** Kalejira Batukale Samba taldeagaz (EH).
- 16:00** Dub Stage:
 - Bomb Bass Hifi Sound.
 - Stepi Selektah eta lagunak.
 - Errege Sound System.
 - Turning Point Sound System.
- 22:00** Kontzertuak, Biobizz Portua Stagen:
 - Rod Taylor & Heartical.
 - Akatz.
 - Xiberoots.
 - The Titanians.
 - George Palmer & Well Charge Band.
 - Potato Ska Reggae Banda.

Lemoiz Txapel Reggae jaialdia

Euskal reggaeari lehentasuna eman gura izan diote aurtengo edizioan

Uztailaren 16an, Karmengo jaien barruan, Jamaikako musikan oinarritutako doinuek hartuko dute Armintzako portua. Denera, sei banda taularatuko dira, gehienak Euskal Herrikoak.

IKER RINCON MORENO ►

Armintzako reggae-musikako festibalak 1990an hasi zuen bere ibilbidea; orain 32 urte izan zen bere lehenengo edizioa, eta, ordutik, nazioarteko zein tokiko hamaika talde ekarri ditu BioBizz Portua Stage agertokira.

Pandemiak Jamaikako musikaren zaleak umezurtz utzi zituen, osasun-neurriek ezinezko egin zutelako mota honetako ekitaldi jendetsuak antolatzea. Hala ere, aurtun, 2022an, indarrez beteta bueltatuko da Txapel Reggae Lemoizko kostaldera. Oraingoan, Euskal Herriko musika-eszenari protagonismoa emango diote, «hori bultzatzeko asmoz». Hala, programazioak euskal reggaearen alde jo eta bost herrialdetako bandak ekarriko ditu: Araba, Bizkai, Gipuzkoa, Nafarroa eta Zuberoakoak, hain zuzen ere. Etorriko diren artean, antolatzaileek nabarmendu dute Akatz eta Potato bandak mantendu gura izan dituztela kartelean, «festibalearen 30. urteurrenean egongo zirenak 2020an, baina, pandemia zela medio, ezinezkoa izan zena egin». Gainera, Rod Taylor artista jamaikarra eta Heartical frantziarra gonbidatuko dituzte, nazioarteko eszenari jarraitasuna emateko. Gainera, ohi bezala, programazioa osatuta egongo da Dub Stage-an arituko diren sound system-eko lau proposamenakaz.

SEI MUSIKA-BANDA. Agertoki nagusian, BioBizz Portua Stage izenekoan, reggae-musikan erreferente diren sei musika bandak joko dute zuzenean, 22:00etatik aurrera.

Rod Taylor izango da kartelean burua; ahots argiko abeslari jamaikar hori sound systemetan hasi zen, eta, arrakasta izan ahal, ahots handiakaz kantatzen hasi zen, hala nola Dillinger, Barry Broynd, Sugar edota Linval Thomposonegaz. Jamaika, Ingalaterra eta Frantzia artean du bere lan artistikoa, eta, elkarlan horiei esker, Heartical talde frantzia-



Armintzako portuan doinu jamaikarrak izango dira nagusi uztailaren 16an. TXAPEL REGGAE

Pandemiak Jamaikako musikaren zaleak umezurtz utzi zituen, osasun-neurriek ezinezkoa egin zutelako mota honetako ekitaldi jendetsuak antolatzeko. Hala ere, aurtun, indarrez beteta bueltatuko da jaialdia.

rrak lagunduko du jamaikarra Armintzan. Haien ondoren, euskal-eszenako erreferentzia irabazi duten Akatz eta Potatok hartuko dute lekukoa; 30. edizioan kantatu behar zuten Txapel Reggaen, baina, COVID-19a zela-eta, 2022ra atzeratu behar izan dute euren kontzertua. Lehenengoak, gainera, Armintzako jaialdiko aspaldiko ezagunak dira.

Beste hiru taldeak Xiberoots zuberotarrak, The Titanians iruindarrak eta George Palmer & Well Charge Band donostiarrak igoko dira taula gainera. Iparraldekoek, gainera, nabarmentzeko dute reggae musikaren bidez euskara hedatzea izan dutela hasierako helburu gisa.

JAIA, EGUERDITIK AURRERA. Festa giroa eguerdiko 12:00etatik aurrera izango da nagusi Armintza inguruan, Batukale Samba perkusio-taldeak girotuta. Orduete beranduago, 13:00etan, skate erakustaldia hasiko da Dub Stage agertokian, eta gura dutenek parte hartu ahal izango dute.

Ohi bezala, antolatzaileek gogoratu dute senidetasun-giroak eta dardara onak osatuko dutela jaialdia, eta horixe nabarmentzea gura dutela: «pertsonek arteko harmonia». ◀

Erendio Asuako jaiak

Asuan jarraituko du jaiak

Goierriren ondoren, uztaileko bigarren hamabostaldian Asuako festen txanda izango da, 15etik aurrera.

Bi urteren ostean, azkenean, Asuako bizilagunek festak elkarregaz ospatzeko aukera izango dute. Auzo txikia izan arren, gogoz biziko dituzte beraien jaiak asuatarrek. Aurten, uztailaren 15ean hasi eta 17ra bitartean luzatuko dituzte ospakizunak Erandioko auzo horretan. Ederto pasatzeko musika, jana eta ikuskizunak izango dituzte egun horietan.

Txupina botatzeagaz batera, sardina-jana, elektrotzaranga eta disko-festa izango dituzte lehen egunean. Bigarrenetan, aldiz, eguerdian jarraituko du festak, paella eta tortilla txapelketakaz. Umeek ere ederto pasatzeko aukera izango dute, eurentzako jolasak prestatuko baitituzte.

Azken egunean, herri-bazkaria, eta Pancho Balbuena mariatxiaren kontzertuagaz amaituko dituzte Asuako festak. ◀



Goi-Alde Dantza Taldeak dantzaldia eskainiko du zapatuan. GOI-ALDE DANTZA TALDEA

Uztailaren 15etik 17ra

Uztailak 15, barikua

- 19:00 Txupinazoa eta kalejira.
- 21:00 Sardina-jana.
- 22:30 Elektrotzaranga.
- 00:30 Disko-festa.

Uztailak 16, zapatua

- 13:00 Kalejira eta familia guztiarentzako Olgetan Solas jokoak.
- 14:00 Paella- eta tortilla-lehiaketa.
- 18:00 Goi-Alde Taldearen dantzaldia.
- 19:00 Umeentzako berbena.
- 21:30 Txorizo dastaketa.
- 23:00 Berbena eta disko-festa.

Uztailak 17, domeka

- 12:00 Meza.
- 13:00 Luntxa.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:30 Bingoa.
- 18:30 Pancho Balbuena mariatxia.



Txupina botatzeagaz batera, kalejira bateagaz emango diete hasiera festei.

Sopela Karmenak

Urgitxieta plazak hartuko d

Sopelan jaiek ez dute etenik. Sanpedroetako ajea atzean utzita dena dago prest Urgitxieta inguruan ospatuko diren Larrabasterrako jaietan ederto pasatzeko.

Ohi den legez, kuadrillek, Udalak, eta auzoko bizilagun eta elkarteek osatzen duten jai-batzordea arduratu da aurtengo jaien antolakuntzalaneez. Horren emaitza da orriotara ekarri dugun egitarau oparoa.

Aurten ere, itsasoko izakiak izango dira uztailaren 14an jaien hasiera iragarriko duten protagonistak. Antolatzaileek mozorroa ez ahazteko gogoratu dute, azken Itsas Kalejira duela urte bi izan baitzen. Loiola Ander Deunan hasiko dute ibilbidea, surflarien eskulturatik. Bukatzean, pregoia eta txupinaren jaurtiketa egingo dituzte, jaien hasiera ofizialaren berri emateko. Une horretatik aurrera, bertaratuko diren adin guztientzako laguntzako hiru eguneko programazio oparoa prestatu dute uztailaren 14tik 17ra.

Urtero egiten duten moduan, jai-batzordeko kideek festa parte-hartzaileak eta herrikoiak antolatzeko erronka bereganatu dute, horregatik, dei egin diete sopoloztarrei eta ingurukoei jai-giroan murgiltzeko eta jardueren parte izateko.

Barikua, uztailak 15, gazteen eguna izango da; izan ere, Sopelako Kuadrillak ere Larrabasterrako jaien antolakuntza-lanetan aritu dira. Beraien helburua festa horiek sustatzea



Uztailaren 14an, zazpi itsasoetako biztanleak

Primitial Bros, Los Zopilotes Txirriaos, Supercremalleras eta Derby Motoreta Burrito Kachimbra taldeek emango dituzte Karmenetako kontzertuak Urgitxieta plazan.

eta gazteen inplikazioa areagotzea direla azaldu dute, horregatik, herriko beste eragile kultural eta politikoak aritu dira elkarlanean. Horren emaitza dira Burdin Hesira egingo duten mendi-martxa, langileen eta krisiaren inguruko mahai-ingurua, kuadrillen bazkaria eta ondorengo bertso-saioa.

Karmenetako egun handian, goizetik hasiko dira jarduerak: Barinatxe txistulari-taldearen kalejira, santuaren omenezko meza eta tango-ikuskizuna egongo dira. Arrastian,

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH
Service
Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Ikastolak
HAMILTON Play-School
Enpresak
ENGLISH SATURDAY Play-School

hamilton
IDIOMAS

INGELESA
ALEMANIERA
FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com
www.hamiltonidiomas.com

u lekukoa



Larrabasterran lehorreratuko dira Karmen jaiei hasiera emateko.

berri, boxeo amateur jaialdia eta pala eta pilota partidak egingo dituzte Urkon eta Sopelako frontoian. Iluntzean, festak Urgitxietako kontzertuak jarraituko du.

Jaien azken eguna lapiko artean pasako dute, goizetik hasita marmitako-lehiaketa egingo baitute Urkon. Umeentzako jolasak, bitsaren jaia eta disko-festa ere egongo dira bertaratuko diren guztiak alaitzeko. Egitaraua Otxandategi abestaldeak itxiko du *Bakezaleak* ikuskizuneko musika eta dantzakaz. ◀

Uztailaren 14tik 17ra

Uztailak 14, eguna

- 18:30** Parrillada jubilatuen etxean.
- 19:00** Jaien hasiera Itsas Kalejiragaz. Loiola Ander Deuna kaletik hasita (surflariaren eskulturaren).
- 20:00** Pregoia eta txupina jaurtitzea.
- 20:30** Disko-festa, Urgitxieta plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Urgitxieta plazan.
- 23:00** Umore- eta musika-ikuskizuna Primal Bros taldeagaz.

Uztailak 15, barikua

- 09:00** Mendi-martxa Burdin Hesira, Sopelako Kuadrillek antolatuta. Irteera txosnetatik.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 12:00** Mahai ingurua: *Langile mugimendua krisi testuinguruan*. Urgitxieta plazan, Sopelako Kuadrillak antolatuta.
- 13:00** Kalejira Sopela Kantariren eskutik.
- 14:00** Kuadrillen bazkaria Urgitxieta plazan. Tiketak zortzi eurotan egongo dira salgai Laiak eta Zutarri tabernetan.
- 15:00** Bazkal osteko bertso-saioa, Urgitxieta plazan.
- 17:00** Mural-margotzea, Urgitxieta plazan.
- 18:00** Tiragoma-txapelketa, Peña Bizkaia de Tiragomas elkartearen eskutik, Iberrota plazan.
- 19:00** *Kross-Mic* kale-antzerkia, Urgitxieta plazan.
- 23:00** Kontzertua: Zopilotes Txirriaos, Urgitxieta plazan.

Uztailak 16, zapatua

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 12:00** Meza nagusia Karmengo elizan. Ondoren, Sopelako Lagun Artea abesbatzaren kontzertua eta ohorezko aurraskia.
- 13:00** Barinatxe txistu taldearen kalejira, Karmengo elizatik Urgitxieta plazara.
- 13:30** Tango ikuskizuna La Sureña Tango taldearen eskutik, Iberrota plazan.
- 19:00** Boxeo amateur jaialdia, Urko kiroldegian.
- 19:30** Pala eta pilota partidak, Sopelako frontoian.
- 22:30** Kontzertua: Supercremalleras, Urgitxieta plazan.
- 22:30** Plaza Beltza kulturuneak ere Losa Ganen kontzertuak antolatuko ditu txosna-gunean. Momentuz taldeak zehaztu barik daude.
- 23:30** Kontzertua: Derby Motoreta's Burrito Kachimba, Urgitxieta plazan.

Uztailak 17, domeka

- 10:00** Marmitako-lehiaketa Urkon. eta
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako eta gazteentzako jolas parkea Urkon: ur-puzgarriak...
- 14:00** Marmitako-lehiaketaren kazolen aurkezpena.
- 15:00** Lehiaketaren sari-banaketa.
- 16:30** Bitsaren jaia, Urkon.
- 17:00** Guztientzako disko festa, Urkon.
- 21:00** *Bakezaleak* musika eta dantza ikuskizuna Otxandategi Abestaldeagaz.

hiruka
Prensa euskaraz, prensa euskaraz!

«Orain, politena dator: mundura zabaltzea»

35€ OFFER

EGIN ZAITEZ HIRUKALAGUNI

- ▶ Aldizkaria hiler PDFan irakurtzeko aukera izango duzu.
- ▶ Beste herritarrek baino lehenago jasoko duzu aldizkariaren bertsio digitala.
- ▶ Opari eta sarriren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

ABENTURA HONETAKO KIDE IZATEKO:
administrazioa@hiruka.eus

Kafetegia

GOXO BREAK

Agidenda

• ore amarekin esindako osia

• gozari bereziak

• pintxoak

GAZTARIFE, 14 A-LONJA, LARRABASTERRA

Plentzia Karmen, Madalena eta Saratxagako jaiak, eta San Inazio Eguna

Festak auzoz auzo

Asteburuz asteburu, jaien lekukoa dantzan ibiliko da Plentzian. Hala, uztailaren 15etik aurrera, Ontziolak, Saratxagak eta Eleiz plazek hartuko dituzte ospakizunak

Uztailaren 15etik aurrera, askotariko ospakizunak izango dira protagonista Plentzian. Izan ere, Karmengo itsas prozesioen eta marmitakoen ondoren, Madalenak nagusi izango dira hiri-bilduan; horietan, uztailaren 21ean eta 22an, Madalentxuak izango dira protagonista, baita inguruotan famatu bilakatu diren koktelak ere. Nork egingo ote du konbinaturik onena? Bada, jakiteko itxaron beharko dugu.

Festa horien ondotik, Saratxagak hartuko du lekukoa, eta, egun bi beranduago, San Inazio Eguna ospatuko dute, alde zahar erdi-erdian dagoen Eleiz enparantzan. ◀

Karmen jaiak

Uztailak 15, barikua

- 17:00** Ur parkea itsasadarrean.
- 18:00** Txupinaren jaurtiketa.
- 19:00** Sardina-jana.
- 20:00** Kantujira portuko plazatik hasita, Plentzia Kantagunegaz.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 22:30** Berbena.

Uztailak 16, zapatua

- 11:00** Diana eta kalejira.
- 12:00** Karmengo Ama Birjinaren omenezko meza.
- 13:00** Txaranga portuan zehar.
- 18:00** Karmengo Ama Birjinaren jaitsiera elizatik itsasontzira.
- 18:30** Karmengo Ama Birjinaren itsas prozesioa. Eraman ezazu zapi

zuria Gorlizko ospitaleko jendea agurtzeko.

- 20:00** Karmengo Ama Birjinaren omenezko aureskua eta Salbea. Dantza ekitaldia Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 21:00** Kantujira portuko tabernetatik.
- 22:00** Zezensuzkoa.

Uztailak 17, domeka

- 10:00** Diana eta kalejira.
- 10:00-10:30** Marmitako lehiaketaren izen-ematea.
- 12:30** Bertso-triki poteoa tabernetatik.
- 13:00** Marmitakoen aurkezpenaren hasiera.
- 14:30** Sari banaketa.
- 17:00** La Salve Traineruen Liga 2022.

Madalena jaiak



Uztailak 21, eguna

- 18:00** Txupinaren jaurtiketa Madalentxuen eskutik.
- 18:30** Tailerrak eta haurrentzako parkea futbito zelaian.
- 18:30** Kantujira Madalentxuakaz herritik.
- 22:00** Zezensuzkoa Ontziola plazan.
- 22:30** Berbena.

Uztailak 22, barikua

- 11:00** Txupinaren jaurtiketa txistulariakaz.

- 11:30** Madalentxu eta Udalbatzaren elkarretaratzea Ontziola plazan, ondoren Eleiz enparantzara igotzeko.
- 12:00** Madalen Andra Mariaren ohorezko meza patroien omenez, eta aureskua.
- 13:30** Musika bandaren kontzertua Ontziola plazan.
- 14:30** Madalen koktela fanfarriagaz.
- 17:00** Elektrotxaranga alde zaharretik.
- 19:00** Disko-festa Ontziola plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa Ontziola plazan.
- 22:30** Gau musikala.

Saratxagako jaiak


Uztailak 29 barikua

- 12:30** Aire libreko meza.
- 13:00** Aureskua eta luntxa.
- 16:00** Bingo musikatua.

San Inazio Eguna

Uztailak 31, domeka

- 12:00** Haurrentzako tailerrak.
- 13:00** San Inazioaren ohorezko meza.
- 18:00** Dantza-saioa Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 20:30** Disko-festa.
- 22:00** Zezensuzkoa Azurtegiando plazan.



Sopela Santa Marina Eguna

Ohiturak berreskuratzen

Sopeloztarrek Santa Marinako basilizara joateko ohitura berreskuratuko dute aurten. Egun horretarako, goizetik gauera arte iraungo duen egitaraua antolatuko dute.

Usadio zaharrei jarraituz, uztailaren 20an, 10:00etan, Santa Marinara joateko hitzordua jarri dute sopeloztarrek. Debozio-festa izan arren, degabeenentzako moduko egitaraua prestatu dute egun osorako: 11:00etako meza bukatzean, ohorezko aureskua eta lore-eskaintza egingo dute Fernando Ansoleagaren omenez. Haren izena duen plazan egingo dute hori, eta, horren ondoren, umeentzako hamaiketako egongo da musikak alaituta. Eguerdian, herri-bazkaria egingo dute, eta festak arrastian jarraituko du tortilla lehiaketagaz eta erromeriagaz. ◀



Santa Marina basiliza

Haitzen artean erdi ezkutatuta, 140 eskailera igo behar dira XV. mendeko Santa Marina edo Santa Mariñe basilizara heltzeko. Santuaren irudia haurdun zeuden emakumeen zaindaritzat jotzen da.

Egitaraua

Uztailak 20, zapatua

- 10:00** Txupina jaurtitzea eta Sopelako udaletxeko plazatik Santa Marinako haitzetarako bidea kalejiran egingo dute, Barinatxe txistulari-taldearen doinuek lagunduta.
- 11:00** Santuaren ohorezko meza nagusia, Santa Marina basilizan.
- 11:30** Ohorezko aureskua eta lore-eskaintza Fernando Ansoleagaren zenaren omenez.
- 12:00** Hamaiketako trikitiaren musikak alaituta.
- 14:00** Herri-bazkaria, Fernando Ansoleaga parkean.
- 17:00** Tortilla-lehiaketa.
- 18:00** Erromeria.
- 23:59** 2022. urteko jaien amaiera.

Urduliz Santa Mariñe Eguna

Dantzan mendian gora

Aurtengo Santa Mariñe Eguna eguazten batean ospatuko dute, baina urduliztar guztiek ederto pasatzeko aukera izan dezaten, zapatuan ere jarduerak antolatuko dituzte.

Urduliztarrentzako egun handia da Santa Mariñeren omenezko jaieguna. Sopeloztarrek bezala santuarenganako debozioa partekatzen badute ere, bakoitzak bere aldetik antolatzen ditu festak.

Aurtengo festa uztailaren 20an eta 23an egingo dute. Lehen egunean, basilizara igozteko prozesio egingo dute txistulariek lagunduta, eta, urte honetan amak izan direnak omentzeko aureskuren ostean, dantzaldiak egongo dira Antsonekoa plazan, arrastian. Zapatuan, aldiz, tortilla-lehiaketa eta kuadril lentzako jolasak egingo dituzte. ◀

Uztailak 20, 23 eta 30

Uztailak 20, eguaztena

- 11:30** Urdulizko Andra Mari elizatik Santa Mariñeko basilizara igoera, udal-aginteagaz eta txistulariek lagunduta.
- 12:00** Meza nagusia.
- 13:00** Ohorezko aureskua azken urtean ama izan direnentzat.
- 13:15** Hamaiketako fanfarreak alaitua.
- 19:00** Santa Mariñetik Antsonekoa plazaraino jaitsiera egingo dute dantzari taldeen ikuskizunetarako: Iratxo Gorria (Urduliz), Agurra (Algorta) eta Kilometro kantuz (Basauri eta Sopela).
- 20:30** Txokolatada. Plastikozko edalontziak ez erabiltzeko, bere katilua daramanak lehentasuna izango du.

Uztailak 23, zapatua

- 12:30** Tortilla-lehiaketaren izen-ematea.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.
- 16:00** Kuadrillen jolasak. Sari berezia irabazleentzat.
- 18:00** Tortilla-lehiaketaren sari-banaketa. Lehiaketaren oinarriak:
 1. Egurra eskuragai egongo da, butanoa ere erabil daiteke.
 2. Hurrengoko osagaiak soilik erabil daitezke: patata, arrautza, olio eta gatza.
 3. Bi kategoria: 16 urtera arte eta 16 urtetik aurrera.

Uztailak 30, zapatua

- 09:00** Txakur-lehiaketa.

Getxo XXXVII. Nazioarteko Folklore Jaialdia

Dantza tradizional ikusgarriak, Algortan

**Dantza eta musika
tradizionalen ikuskizunak
Muxikebarri Antzokira
buelatuko dira, uztailaren
22tik 24ra egingo duten
Nazioarteko Folklore Jaialdian.**

Aurtengo Nazioarteko Folklore Jaialdiko protagonistak izango dira euskal dantzak, georgiar tradizioa eta AEBetako New Orleanseko kolorea eta nazioartekotasuna. Jaialdia uztailaren 22tik 24ra egingo dute Getxoko Muxikebarriin. Hiru ikustaldiak 20:00etan hasiko dira, eta hiruna euroko prezioan salduko dituzte sarrerak; hala ere, egingo dituzten hiru ikuskizunez gozatu gura dutenentzat zazpi euro-tara salduko dituzten bonuak.

Urtero legez, jaialdiko lehen ikuskizuna eskaintzearen ardura izango du tokiko Itxartu Dantzari Taldeak. 1976an sortu zen talde getxoztarrek betiko euskal kulturaren folklo-reko dantzen erakustaldia egingo du. Gaur egun, 100 kide inguru dituen taldeak hainbat jaialditan parte hartu du euskal kulturaren dantza adierazgarrienak zabaltzeko.



Euskal Herriko dantzak maisuki interpretatzen ditu talde getxoztarrek. ITXARTU

**Itxartu taldeak
urtero ordezkatzeko
du euskal kultura
Getxoko Kultur
Etxeak antolatzen
duen Getxoko
Nazioarteko Folk
Jaialdian.**

Bestalde, bigarren jardunaldian, Kaukaso ingurutik etorritako TSU-Flyng Georgians taldeak inguru horretako dantza ikusgarri eta akrobatikoak eskainiko ditu. Azkenik, hirugarren jardunaldian, New Orleansetik datorren Komenka dantza eta musika talde etnikoaren txanda izango da. Hainbat herrialdeetako dantza tradizionalak bateratzen dituen konpainia horrek hainbat urte daromatza mundu osoko antzezlekuetan. ◀

Sopela Folklore Bizian 2022

Argentina, Sri Lanka eta Euskal Herriko kulturak batuko dira Sopelan

Larrabasterrako Urgitxieta plaza hiru kontinenteko kulturen elkargunea izango da uztailaren 22an. Bariku horretan, 20:00etatik aurrera, Folklore Bizian dantza-ekitaldian parte hartuko dute Argentinatik etorritako Gran Ballet Argentinok, Sri Lankako Sama Ballet Folklore Multzo Nazionalak eta Galdakaoko (Bizkaia) Andra Mari Dantzari Taldeak.

Talde galdakoztarrek urtero antolatzen duen nazioarteko dantza eta musika jaialdia da Folklore Bizian. Aurten, jaialdiaren 35. edizioa antolatuko dute, eta, Sopelaz gain,



beste udalerrri batzuetara ere eraman ohi dituzte nazioarteko talde gonbidatuak.

Aurten, alde batetik, ia 60 urteko ibilbidea duen talde argentinarra ekarriko dute. Hego Amerikako herrialdeko doinu eta dantzen mamia ikuskizun dinamiko eta gaurkotu bat egaz eskainiko dute. Beste aldetik, Indiako Ozeanoko dantza bertaratuko dute Sama Ballet taldeko kideek. «Sama» berbak bakea esan gura du zingalieraz eta tamileraz, Sri Lankako bi hizkuntza ofizialetan; izan ere, taldearen helburua dantzaren bidez bakea munduan zabaltzea dela diote. ◀

Plentzia Historian murgiltzeko hainbat jardunaldi

Historiaren erdigunea izango da Plentzia uztailean

Hiribilduko eta eskualdeko iragana hobeto ezagutzeko urteroko jardunaldiak egingo dituzte Plentzian. Txikienek ere tartea izango dute ikasiz ondo pasatzeko.

Plasentia de Butron museoak hainbat jarduera prestatu ditu udaldian eskualdeko historiari blai egiteko. Hasteke, uztailaren 12tik 14ra bitartean, XIV. Plentzia eta Uribe Kostako Historia Jardunaldiak egingo dituzte; ondoren, uztailaren 27tik 29ra, Kantauriko Itsas Kulturaren IV. Kongresua egingo da; eta azkenik, uztailaren 31n, museoak kalera aterako dute eta umeei itsasontziak nola egiten ziren erakutsiko diete. Horretaz gain, udan zehar, bisita gidatuak eta eskualdeko historiaurreko aztarnategien aldi baterako esposizioa ere egingo da; tartean, Iñaki Libano Edestiaurre Arkeologi Elkarteko presidenteak duela milaka urteko Uribe Kosta nolakoa zen azalduko du uztailaren 13an.

Museoko etnografia taldeak antolatzen duen historiari buruzko dibulgazio-jardunaldietako aurtengo gaiak hauek izango dira: Joseba Zarraga Barrikako XVI. mende arteko historiari eta baserriaz arituko da, Jose Ma Beascocheak Plentziako udaletxearen 500. mendeurren baliatuko du eraikinari buruz gutxi ezagutzen zuten bitxikeria eta berezitasunak azaltzeko, Libanok Uribe Kostako Burdin Hesian egindako azken indusketen berri emango du eta Jondalar Sotak historiaurreko azken aurkikuntza arkeologikoak komentatuko ditu. Bukatzeko, Plentziako errotulu eta kartel komertzial zaharren erakusketa ere egingo dute, horien jatorriaren inguruko berbaldu bategaz.

Era berean, kanoi-bolak, txanpon erromatarrek eta Erdi Aroko hainbat objektu ere egingo dira ikusgai. Horien artean, interes berezia piztuko dute Hondartzape tabernaren obretan aurkitu dituzten XVI-XVII. mendekoak izan daitezkeen kai zaharreko hormaren aztarnak; lehen aldiz azalduko dituzte publikora, eta erromatarren garaitik hiribilduko kaiak izan zuen garrantzia ulertzen lagunduko dute, besteak beste.



Aurten Barrikan aurkitutako aztarnategien berri emango dute historia jardunaldietan.

Bisita gidatuak

Uda osoan zehar, museoak doako bisita gidatuak eskainiko ditu, bai historiaurreko alde baterako erakusketa, bai bilduma egonkorra ezagutu ahal izateko. Gainera, abuztuan eta irailean hainbat bisita gidatu antolatuko dituzte Bilboko Arkeologia Museoko biltegiak gordetzen dituen sekretuez jabetzeko. Jarduera horietan parte hartzeko aldeztu aurretik izena eman beharko da 946 773 725 telefono-zenbakira deituz edo kontaktua@museoplentzia.org emailera idatziz.

Uztailaren bukaeran, Kantauri osoko unibertsitateetako irakasleak eta Aro Modernoan eta itsas kulturaren espezializatutako historia-lariak bertaratuko dira Goñi Portalera, Kantauri kostaldeko XVIII. mendeko portuez arituko baitira hilaren 27tik 29ra. Historia jardunaldiek baino izaera akademikoagoa duen laugarren kongresu horretan egingo diren adituek itsasoagaz eta bere bizimoduagaz lotutako hainbat gai jorratuko dituzte.

UMEENTZAKO JARDUERAK. Uztailaren 31n, urtero bezala, museoak kalera aterako dute, eta txikiei eskualdeko historia hurbiltzeko jarduerak egingo dituzte: itsasontzi eta tresna nautikoen erakusketa bat, zurezko itsasontzi txikiak egiten ikasteko tailerra eta arrantza-kanaberak eta jostailuak dituen urmael bat ere sortuko dute. Jarduerok museoaren aurrean egingo dituzte. ◀

Berango Santa Anako jaiak

Kontzertuak, Santa Anako

Auzo berangoztarra musikaren erdigunea izango da uztailaren 24tik 26ra, askotariko eskaintzakaz. Hala ere, kontzertuak ez dira izango aukera bakarrak.

El Mentón de Fogarty, Gora Herria eta Extremoduro –azken hau tributua bada ere, Pedrá taldearen eskutik– musika-taldeen abestiak entzun ahal izango dira Santa Anako jaietan uztailaren 24tik 26ra bitartean. Hala, ez izan zalantzarik, parrandazalez beteko dela egun horietan Berangoko auzo hori; eta kontzertuengatik ez bada, goizeko ordu txikietara arte luzatuko den disko-festei esker izango da. Bilbainaden zaleek ere euren txokoa izango dute, zelan ez, Los cinco bilbaínos talde mitikoaren eskutik.

Kantarienek ere auzoz auzo ibiltzeko aukera izango dute, uztailaren 24an, Berango Kantari taldearen eskutik; Axganetik hasita, alderik alde arituko dira abesten, Santa Anara iristeraino.

Hala ere, Santa Anako jaietan ez da dena parranda eta musika izango. Izan ere, adin guztientzako herritarren gozagai izango diren hamaika ekitaldi egongo dira aukeran. Umeentzako pintura-lehiaketak irekiko du jaien egitaraua, domekan, uztailaren 24an, eguerdiko 12:00etan. Hortik aurrera, bata bestearen atzetik helduko diote ekintzek jaien ginkanari: asto-probak, tailerrak, janak, erakustaldiak... Ohi bezala, Euskal Herriko jai guztietan legez, txapelketa gastronomikoren



Egunero kontzertu bat edo beste egongo da Santa Ana auzoan. Horien artean, nabarmentzekoa

Elkarlana

Argia Fundazioak herritarrentzako tailerrak egingo ditu uztailaren 24an, eta, 26an, aldiz, Otxandategi Dantza Taldeko txikienek nagusienentzako hamaiketako egingo dute.

bat ere martxan egongo da Santa Anan. Kasu honetan, auzokideek euren trebezia erakutsi beharko dute, baita praktikan jarri ere, tortillarik onena nork egiten duen demostratzeko. Txapelketa astelehenean egingo dute, uztailaren 25ean.

Kirolak ere bere lekua izango du jaiotan. Izan ere, txirrindularitza-lasterketa egingo dute uztailaren 25ean, arrastiko 16:30ean. Horren ondoren, txokolatzeko taza bat edan indarrak berreskuratzeko eta txikienek herri kirolean trebatzeko aukera izango dute. ◀



**NEBARREBAK
TABERNA**

Sabino Arana 20, Berango
ONDO PASA JALETANI



**NAGUSIEN
TABERNA**

Sabino Arana 24, BERANGO

**FRONTOI
TABERNA**



Sabino Arana Kalea, 25 • BERANGO
Tel. 946 682 604

jaien pizgarri



da uztailaren 25ekoa, astelehenekoa, El Mentón de Fogarty talde bilbotar ezaguna arituko baita.

Uztailaren 24tik 26ra

Uztailak 24, domeka

- 12:00** Pintura-lehiaketa, IGEK antolatuta.
- 13:00** Bilbainadak: Los cinco bilbaínos.
- 18:00** Asto-probak.
- 19:00** Berango Kantari, irteera Arganetik, Santa Anaraino.
- 19:00** Disko-txiki: DJ Kaktus.
- 20:00** Tailerrak, Argia Fundazioaren eskutik.
- 23:30** Kontzertua: Pedrá, Extremoduro taldeari tributua.
- 01:30-04:30** Disko-festa.

Uztailak 25, astelehena

- 11:00-15:00** Bubble Balls, Kirolgunen. Berango Gazte Lab-ek antolatuta.
- 12:00-15:00** Haurrentzako parkea.
- 12:30** Tortilla-txapelketa eta bazkaria. Aurkezteko epea 14:00etan izango da.
- 16:30** Txirrindularitza-lasterketa.
- 18:30** Txokolate-jana.
- 19:00** Herri Kirolak, umeentzat.



- 23:30** Kontzertua: El Mentón de Fogarty.

- 01:30-04:30** Disko-festa.

Uztailak 26, martitzena

- 12:00** Meza.
- 13:00** Hamaiketako nagusientzat, Otxadategi Dantza taldeko umeen eskutik.
- 19:00** Disko-festa DJ Urtzagaz.
- 19:30** Asto-probak.
- 20:00** Sardina-jana.
- 21:00-01:00** Erromeria: Gora Herria.

Getxo Santa Anako jaiak

Auzoko festak ere herritarrek dantzan jarriko ditu

Areetako Santa Ana auzoak festa-giroa berreskuratuko du uztailaren 22tik 24ra bitartean. Egun horietarako, tokiko jai-batzordeak adin guztientzako egitarau zabala antolatu du. Gaztetxoentzako aukerarik ez da faltako, puzgarriak eta jolasak izango baitituzte gozagai egunero. Gauean, berriz, parrandazaleentzako erromeria eta disko-festa egongo dira, barikuan eta zapatuan, hurrenez hurren. Zintzurak bustitzeko, bakoitzak gura duen edabeagaz, eta tripa betetzeko hainbat aukera ere egongo dira: barikuko sardina-jana eta zapatuko saiheski-janagaz. Horri helduta, auzotarren abilezia gastronomikoak proban jartzeko bi aukera ere egongo dira; nor egingo ote du tortillarik edota paellarik onena? Bada, galdera horri erantzuteko, festei heldu beharko zaie! ◀

Uztailaren 22tik 24ra

Uztailak 22, barikua

- 17:00** Puzgarriak eta jolasak.
- 19:00** Txupinaren jaurtiketa eta buruhandiak.
- 20:30** Sardina-jana.
- 22:30** Erromeria.

Uztailak 23, zapatua

- 11:00** Puzgarriak eta jolasak.
- 13:00** Show.
- 13:45** Tortilla-txapelketa.
- 17:00** Puzgarriak eta jolasak.
- 18:00** Igel-toka eta txapela-txapelketa.
- 19:00** Magia erakustaldia.
- 20:30** Saiheski-jana, Hermanos Urrutia harategiaren eskutik.
- 22:30** Disko-festa.

Uztailak 24, domeka

- 11:00** Futbol 3 Txapelketa.
- 11:30** Puzgarriak eta jolasak.
- 13:00** Paella-txapelketa.
- 17:00** Ur guda.
- 17:30** Apar-festa.
- 18:30** Herri Kirolak, erakustaldia.
- 19:30** Sarien banaketa.
- 20:00** Karaokea.
- 23:00** Zinema.
- 23:59** 2022. urteko jaien amaiera.

Gorliz Santiagoak

Parte-hartzeko hamaika aukera Santiago jaietan

Uztailaren 22an hasi eta 26ra arte iraungo dute aurtengo Gorlizko Santiago jaiek. Gorliztarrek ederto pasatzeko hainbat jarduera prestatu dituzte egun horietarako, baita Mozorro Lehiaketa-desfilea eta Rally Barregarria edo ohiko bakailao Bizkaiko erara eta tortilla lehiaketak.

Uda honetan, beste hainbat ospakizun izango dituzten arren Gorlizen, herriko patroiairen omenezkoak dira denek bi urtez itxaron dituzten festa nagusiak. Aurtengo jaiak 2019koak baino laburragoak izango dira, baina zirrara guztia lau egunetan kondentsatu dute Udalak eta jai-batzordeak.

Aurtengo Santiago jaietako pregoia botatzeaz arduratuko da Idoia Urrutia Larraondo. Hori jakinarazi ziotenean, bere lehen erreakzioa harridurazkoa izan zela dio: «Ez nuen ezertarako bez espero. Kultur etxetik deitu zidatenean, Dastatuarteke zeozertarako zela pentsatu neban». Aukeratu dutenek diotenez, bera beti dago prest elkarlanean aritzeko, antolaketan parte hartzeko, eta ez jaietan edo udan bakarrik, urtean zehar ere ideia sortzaileak eskaintzeko prest omen dago beti Urrutia. Gaineratu duenez, jaietan ederto pasatzeko gakoa jardueretan parte hartzea da, horregatik, gorliztarrei eta bertaratuko diren guztiei jardueretan murgiltzeko gonbitea egiten die.

Eta parte-hartzeko aitzakiarik ez da egongo prestatu duten jarduera andanagaz. Alde batetik, hamaika musika ikuskizun egongo dira Habanera eta Euskal Polifonia Jaialditik

Aurtengo Santiago jaietan, Travelling Brothers, Rock&Rollo, Kaotiko, mariatxiak, Band Jovi Bon Jovi taldearen tributua, Urrats erromeria, DJ Kull eta Unai Muguruza izango dira jaietako musika-eskaintza. Horietaz gain, Gorliz Pine-Groove Festival ere egingo dute, Steady Rockets, Skabidean eta DJ Juanita taldeakaz. Doinu lasaia gura dituztenentzat, XXI. Musikaldia egingo dute elizan uztaila eta abuztuan.

edo elizan egingo den XXI. musikalditik hasita, Kaotiko, Travelling Brothers edo Urratsa taldeen doinu gogorretara pasatuz; edota Gorliz Pine-Groove Festival-en reggae eta kaleko erritmo dantzagarrietaraino. Antolatzaileek azaldu dutenez, aurtengo jaialdian, Euskal Herriko artistei ikusgarritasuna eta bultzada eman gura izan diete.

Horretaz gain, uztailaren 24a lehiaketa gastronomikoen eguna izango da. Egundorretan, nagusiek Bakailao Bizkaiko erara txapelketa egingo dute; aldiz, 13 urtetik beherako gaztetxoentzako, tortilla-lehiaketa egongo da, beraiek ere parte hartzeko aukera izan dezaten.

Santiago Egunean, uztailaren 25ean, XXXIV. Nekazaritza Azokaren eguna izango da, baserritar jantziak berreskuratzeko eta herriko sustraietara bueltatzeko hitzordua, hain zuzen ere. 10:30etik hasita, jaietako egun handia ospatzeko hainbat jarduera prestatuko dituzte.

Horretaz gain, ez dira faltako taldeka parte-hartzeko jarduera dibertigarriak: XXV. Mozorro lehiaketa-desfilera eta Rally Barregarria. Horietan eta egingo diren herri-bazkarietan izena emateko epea uztailaren 19a edo plazak agortu arte izango da. ◀



EROSKI center Gorliz
Pol. Sagastikoetxe, manzana 1
Tel. 946 774 101

EROSKI city Gorliz
Iberre Zeharbide, 1
Tel. 946 774 220

EROSKI city Plentzia
Areatza, 1 · Tel. 946 774 281



Itxasbide 13,
GORLIZ 48630

Etxeko pintxoak
Askotariko konbinatuak
Garagardo eta ardo eskaintza zabala
Ostegunetan...pintxo-pote!

☎ 605 721 172 / 944 346 974
✉ newtavern@outlook.com
cafepubnewtavern.multipaciosweb.com



KURRUT JAZZ

OSTEGUNAK 2022
21.00-ETATIK AUERRERA, DOAN

UZTAILA
07 LAGUNA GOONS
14 MARACA DIABLO
21 JUANJO NAVAS
28 WALKING CLASS HERO

ABUZTUA
04 ER DUENDE
11 THE BIG FLYERS
18 OMAGO
25 DE DIEGO BROTHERS
IRAILA
01 MOONSHAKERS

94 677 13 89 www.kurrut.eus

Uztailaren 22tik 26ra

Uztailak 22, barikua

- 20:00** Pilota-jaialdia eta Kuttuneren kontzertua, Elexalde pilotalekuan.
- 20:30** XXVI. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia. Abesbatzak: Coros Los amigos de la guitarra (Barakaldo), Biotz Alai (Algorta-Getxo) eta Lirain (Gorliz).

Uztailak 23, zapatua

- 11:30** Kinpulene Uribe Eskubaloia taldearen eskubaloitailerra, Ibarreta plazan.
- 14:00** Jai giroa.
- 15:00** Herri-bazkaria, Estratakoetxe parkean. Txartelak kultur etxean uztailaren 19ra arte edo agortu arte.
- 16:30** Jokoak gazteentzat, Elizako plazan.
- 19:45** Pregoia eta txupina botatzea Elizako plazan.
- 20:00** Kuadrillen jaitziera. Itsasbide kaletik Ondarganaraino.
- 22:00** Zezensuzkoa Elizako plazan.
- 22:30** Gorliz Pine-Groove Festival: Steady Rockets, Skabidean eta DJ Juanita. Elizako plazan.
- 22:30** Kontzertuak: Travelling Brothers eta Rock&Rollo Ibarreta plazan.

Uztailak 24, domeka

- 09:00** XLII. Bakailao Txapelketa Bizkaiko erara, Estratakoetxe parkean.
- 10:00** Tortilla Txapelketa gazteentzat, Estratakoetxe parkean.
- 11:00** XXXVI. Eskulangintza Azoka, Artzelu plazan.
- 11:30** Zezen puzgarrien entzierroa Elizako plazan eta Itsabide kalean.
- 12:00** Fanfarria kaleetatik.
- 13:00** Bakailaoen eta tortillen aurkezpena.
- 13:30** Moto trial, Ibarreta plazan.
- 14:30** Txapelketa gastronomikoen sari-banaketa.

- 18:30** XXV. Mozorro-lehiaketaren desfilea, Itsasbidetik behera.
- 20:00** Kantu Kolore, Ibarreta plazan.
- 20:00** Gatx gazteen egitarauaren sari-banaketa.
- 20:00** Txistorrada, Ibarreta plazan, Urris taldearen eskutik.
- 20:30** Kontzertua: Beietz!, Elizako plazan.
- 22:00** Mozorroren sari-banaketa, Elizako plazan.
- 22:30** Zezensuzkoa Elizako plazan.
- 22:30** Mariatxiak Ibarreta plazan.
- 23:30** Kontzertua: Kaotiko, Elizako plazan.

Uztailak 25, astelehena

- 10:30** XXXIV. Nekazaritza Azoka, Artzelu plazan.
- 10:45** Zumba, aikido eta boxeoko erakustaldiak, Elizako plazan.
- 11:00** Haur Parkea eta Urris taldeagaz madalena tailerra, Itsasbide kalean.
- 11:45** Triki-kantu eta dantza-poteoa Elizako plazatik. Denok baserritarrez jantzi!
- 12:00** Santiago Gorlizko patroiairen ohorezko meza Lirain abesbatzak abestua.
- 12:00** Ekimen solidarioa Urris taldearen txosnan.
- 12:00** Txutxu trenak kaleetatik.
- 12:45** Ohorezko aureskua eta Aratz taldearen dantzaldia Elizako plazan.
- 15:00** Herri-bazkaria San Pedro plazan. Txartelak kultur etxean uztailaren 19ra arte edo agortu arte.
- 17:30** IX. Xake Partidak Artzelu plazan, «Jose»-ren oroimenez.
- 18:00** Sagardotegi ibiltaria, San Pedro plazan.
- 18:30** Play Back txapelketa Ibarreta plazan. Adina: 0-6, 7-11 eta 12-15. Amaitzean, sari-banaketa.
- 20:30** Play Back txapelketa 16tik gora. Amaitzean sari-banaketa.



- 21:30** EinGo Taldea, Ibarreta plazan.
- 22:30** Zezensuzkoa Elizako plazan.
- 22:30** Urrats taldearen erromeria, DJ Kull, Unai Muguruza Aio DJ, Elizako plazan.
- 23:00** Band Jovi, Bon Jovi taldearen tributua, Ibarreta plazan.

Uztailak 26, martitzena

- 11:00** Zezen puzgarrien entzierroa Elizako plazan eta Itsabide kalean.
- 11:30** Umeentzako parkea, Ibarreta plazan.
- 12:00** Fanfarria Gorlizko kaleetatik.
- 13:00** Jubilatuentzako luntxa.
- 17:00** Fanfarria Gorlizko kaleetatik.
- 17:00** Rally barregarria Ibarreta plazan. Izen-ematea kultur etxean uztailaren 19a baino lehen.
- 19:00** Kale-antzerkia: *Organik*, Sertutxenan.
- 20:00** Bertso Saioa Elizako plazan: Saioa Alkaiza, Andoni Egaña, Aitor Etxebarrizarraga eta Maddi Ane Txoperena.
- 22:00** Kuadrillen Igoera: fanfarriak, taldeak eta ikuskizuna. Itxasbidetik Elizako plazara.
- 23:00** Jaitzierako sari-banaketa Elizako plazan. Ondoren, Urri erreko dute.



TALLER Y TIENDA MULTIMARCA · Tel. 946 774 859 · www.gorlizbiker.com
Pol. Sagastikoetxe - C/ Artzeta, 15 - GORLIZ · info@gorlizbiker.com

Getxo Nazioarteko Paella Lehiaketa

Dena prest hitzordu mundialerako

Getxoztarrek uztailaren 24an izango dute zita handia: Nazioarteko Paella Lehiaketa. Ohi legez, Itxas Argia Elkarteak antolatu du jaia, Aixerrrotako zelaian.

Atzerako kontaketa hasi da, eta urteotako online bidezko hitzordu gastronomikoak atzean utzita, aurrez aurreko ekitaldi handirako prestatzen hasi da jendea jada. Itxas Argia Elkartekoek azaldu dutenez, aurren, gune ofizialeko tutuen muntaketa uztailaren 9-10ean eta 16-17an egingo dute. Horretarako, hitzorduak jarri dituzte egun horietan: 08:00etan Itxas Argiaren lokalean, Malakaten; edo 09:00etan Aixerrrotako landan. «Boluntarioak behar ditugu, eta izena ematera animatzen zaituztegu», zabaldu dute. Gogoratu dutenez, kuadrilla bakoitzetik pertsona bana

Toldoen banaketa
Ohiko parte-hartzaileen artean
toldoak banatu
dituzte uztailaren
5ean eta 6an;
gainerakoak
uztailaren 11n
zozkatuko dituzte.

zeregin horietara bideratzeko eskatu dute eta, iragarri dutenez, «tutuen muntaketan laguntzen duten kuadrillek lehentasuna izango dute toldoen zozketan». Festa handia egin eta hurrengo egunean, uztailaren 25ean, desmuntatzeari ekingo diote, 09:00etan, landan bertan.

Toldoen banaketari dagokionez, uztailaren 5ean eta 6an egin dute hori, ohiko erabiltzaileen artean. Egun horietan ere, «arduradun adierazpena» sinatu behar izan dute parte-hartzaileek; horrek, kuadrillek Itxas Argiak eskura jarriko duen segurtasun araudia ezagutzen dutela bermatuko du: hau da, toldoak suaren kontrakoak direla jakitea eta toldoen inguruan su-itzalgailuak daudela, besteak beste, azaldu du Eskarne Unanue Itxas Argiako presidenteak, «adierazpen hori urtez urte sinatu beharko da hemendik aurrera».



LXIII NAZIOARTEKO PAELLA LEHIAKETA

UZTAILAK 24 IGANDEA

Ondo pasa!



Egitaraua

Uztailak 24

- 10:30** Nazioarteko Paella Lehiaketarako izen-ematearen hasiera.
- 12:00** Txalaparta-deia, Uktest-en eskutik.
- 12:05** Aurreeskua.
- 12:10** Dantza-ikuskizuna Itxas Argiako dantza-taldeko txikien eskutik.
- 13:30-14:30** Paellen aurkezpena.
- 17:30** Sarien banaketa.
- 18:30** Erronomia: Urrats.

Oharra: Goizeko 08:00etatik 09:30era kotxeen sarrera baimenduta egongo da parte-hartzaileek eguna pasatzeko behar duten material guztia euren txosnara hurbil dezaten.
Hortik aurrera, Aixerrrotako landa kotxez libre egon beharko da.

Banatu gabe gelditu diren toldoak, berriz, uztailaren 11n zozkatuko dituzte, 20:30ean. «Zerbakiak egunean bertan hartu ahal izango dira Itxas Argiaren lokalean, 19:00etatik aurrera», azaldu dute. Horretarako, ezinbestekoa izango da 25 euroko fidantza ordaintzea eta NANA aurkeztea, baita zozketaren momentuan bertan egotea ere. «Zozkatutako toldoak urte honetarako bakarrik izango dira», azpimarratu dute antolatzaileak.

Toldoak uztailaren 26an, martitzenean, bueltatu beharko dira, 19:00 eta 21:00 bitartean. «Derrigorrezkoa da toldoak eguera onean itzultzea eta tiketa aurkeztea zerbakiarekin».

Jaiaren egunean izotza edukitzeko, ohi legez, izotz-poltsak enkargatzeko aukera egongo da, uztailaren 5, 6 eta 11n. ◀

Neurri bereziak gura dituzte auzokideek

Aixerrotako pinudia eta landa bera babesteko eskatu diote Getxoko Udalari, gune ez ofizialean kokatzen den jendeak hormigoia erabili eta zuhaitzik bota ez dezan.

Getxoko Auzokideok elkarteak jakinarazi du aurten Udalak neurriak hartuko dituela Aixerrrota inguruko pinudia babesteko, hala nola inguru hori balizatuta eta «bitartekari» bat bideratuta gazteei gomendatzeko hormigoia erabili, surik egin eta zuhaitzik bota ez dezatela. «Hori ezer baino gehiago den arren», eszeptiko agertu dira elkarteko kideak, neurriok «oso eskasak» izango direlakoan.

Getxoko Udalak iragarritako neurrien aurrean, auzo-taldeak eta ekologistek urteetan eskatutako ingurumen-babesak lehentasuna izaten jarraitzen duela azpimarratu du Getxoko Auzokideok taldeak. Horren aurrean, pinudia inbadituz gero eta «Bronx» izenagaz ezaguna den eremuan hormigoizko egiturak altxatuz gero Udalaren jarrera zein izango ote den zalan-tzan jarri dute auzokideek.

Diotenez, Aixerrrotako eta bere aldameneko zuhaizpea «ingurumen-balio ukaezina» duen eremua da, «Udalarentzat lan egin ohi duten ingurumen-teknikariak habitat gisa kalifikatua». Kontuak horrela, uste dute onartezina dela zuhaitzei, sastrakei eta lurzoruari urtero egiten zaizkien kalteak, «bai eta ehunka kilo zementu erabiliz lurzoruak duen kutsadura ere».

Gogoratu dutenez, 2017tik, Udaleko osoko bilkuraren bidez, zinegotzi independenteek eskaerak egin dituzte ildo horretan. «2018ko uztailaren onartutako mozio bat ere badago, non eskatu zen Ingurumenaren Balorazio Txostena egitea, jaietarako pinudia ixtea, zementua erabiltzea debekatzeko eta ingurunearekin erasokorrak ez diren eraikuntza-teknikak erraztea, hala nola mekanotuboa erabiltzea, eremu ofizialean bezala».

«Urteotan guztietan, Udalak uste izan du beharrezkoa dela pertsonen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea jai ez ofizialeko eremu horretan, eta hori, gure ustez, 10 urte daramatzaten ingurumena babesteko proposamenak bezain garrantzitsua da», ohartarazi du Getxoko Auzokideok taldeak.

Hori dena esanda, elkarte horretako herritarrek iragarri dute zuhaitzak edo lurrak berrirako kaltetuz gero, Udala salatuko dutela, «balizko omisioagatik». ◀



Getxo Saninazioetako kuadrillen txapelketako 2019ko irabazleak

«Gora Serbesa, gora kuadrillen»

Orain urte bi altxatu zuten Serbesa eta Askatasunako lagunek jaietako kuadrillen txapelketako garaikurra. Diotenez, luze egin zaie jaiak berreskuratzekeo tartea eta euren esker beroena helarazi gura izan diote jaiak antolatzekeo ardura duen jai-batzordeari.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: SERBESA ETA ASKATASUNA ►

Jaiak berreskuratuta, ohiturari jarraitu eta aurreko festetako kuadrilla irabazleak irakurri beharko du aurten ere pregoia. Oraingoan, baina, duela urte bi irabazitakoa izan beharko da, hau da, Serbesa eta Askatasuna. Zelan bizi izan duten 2019ko garaipen hura gazteok? Eta zer aurreikusten dute 2022ko saninazioetan?

Kuadrillen txapelketa irabazi zenutenetik urte bi igaro dira. Oraindino gogoan duzue garaikurra altxatu zenuten unea? Gogoan daukagu bai... Egia esan, ez genuen irabazterik espero, eta ezustekoan harrapatu gintuen. Ondorioz, ospakizuna lotsagarria izan zen. Aurten, baina, irabazteko asmorik ez dugun arren, halakorik lortuz gero, hobeto ospatzen ahaleginduko gara»

Luze egin zaizue geldialdia jaiak berreskuratzekeo? Bai, luzeegi. Guztiontzako aguanta ezin izan diren urteotan gazteok ditugun beharrak alboratu dituztela uste dugu, errudun sentiarazteraino askotan. Ezin dugu poliziak gazteokin izan duen jazarpena alde batera utz; pandemiak iraun bitartean jaso ditugun isunak kontaezinak izan dira. Garai latzak denontzat izan direla kontutan izanik, badago isunak eta ostiak erabili barik gauzak egiteko modua; hori sinetsi nahi dugu.

Pandemian baztertu izan diren behar batzuk asetzeko garaia izaten dira jaiak gazteontzako: errutinatik ihes egiteko, harremanak sortzeko, ondo pasatzeko eta jende ezberdina ezagutzeko une ederra. Azken bi urteetan oso aukera gutxi izan ditugu gazteok behar horiek asetzeko, eta eskerrak herrian dauden eragile asko, traba handiak jaso dituzten arren, borondate onenarekin kezkak arindu eta auzokideei zer egitekoak antolatzen aha- legindu diren.

Zeintzuk izan ziren 2019ko proba haiek guztiak irabazteko gakoak? Zerbeza eta ja-

rrera. Ez dugu irabazteko asmoarekin parte hartzen, ondo pasatzeko baizik. Horregatik, proba edozein dela ere, inprobisazio osoz jotzen dugu. Denboraz antolatu behar izaten garenean desastre samarrak gara, hobeto moldatu ohi gara momentuan bertan ditugun ideiekin.

Aurten, ohi bezala, zuei egokituko zaizue pregoia irakurtzea. Zer mezu helaraziko duzue? Ez gara pregoia idazten hasi, eta buelatxo batzuk eman behar dizkiogu oraindik. Dena den, badakigu etikak berak eskatzen dizkigun eta, tristeki, sekulan idatzi nahi ez genituzkeen gauzak idatzi beharko ditugula. Denbora asko pasa da azkeneko jaietatik, eta, tamalez, badaude aldatu ez diren gauzak, akabatu beharko liratekeen beste zenbait birus ditugulako inguruan, eta horren aldarria egitea beharrezko ikusten dugu. Jai atarian beharrezkoa da argi geratzea, askatasunez, errespetuz eta inolako diskriminaziorik gabe, jaietan guztiok gozatu behar dugula.

Aurten ere parte hartzeko asmorik duzue? Bai, noski! Algotako jaietan kuadrillek sortzen dutena paregabea da. Kuadrillen giroak harremana sortzen du herriarekin: herria



«Lak eta gora saninazioak!»

alaitu egiten dute eta, aldi berean, giro horrek kuadrilla guztiak gozaraztea eragiten du. Herrikoak izanik, arraro eta aspergarria irudituko litzaiguke txapelketan parte hartu barik geratzea. Txapelketak kuadrilla eskasia izan duen urte batzuen ostean, pozgarria da azkenaldian parte-hartzen ari den kopurua. Algortako kuadrillak inoiz baino biziago bueltan datozela ematen du.

Eta irabazteko? Ez. Esan bezala, gure helburuak beste batzuk dira... Horiek betetzearekin guretzako nahikoa da. Hala ere, ondo pasatzeaz gainera, berriz ere garaile ateratzen bagara, hitz ematen dugu hobeto ospatzen ahalginduko garela aurren.

Zer nabarmenduko zenukete jaiotaz? Edozein jaitan aurki dezakegun gaugiroaz aparte, egunean zehar egitarau osoa izaten dugula. Lau egunean herri osoan antzematen da jaietan gaudela. Egoten diren herri-bazkariekin eta kuadrillen txapelketarekin, egun osoa ka-lean egoteko aitzakia dago.

Zeintzuk proba dituzue gogokoen? Jaitziera eta bazkaria. Lehenengoan ez gara denboraz prestatzen ditugun horieta-



Gaueko ordutegia

«Denok dakigu gaugiroa goiz moztzen denean ez dela zaratarekin bukatzen, ezta juergan dagoen pertsona guztien parranda gogoekin bukatzen. Gogo horiek asebetetzeko txosnen osteko raveak eta karroen jaiak antolatut egiten dira eta, zoritxarrez, badakigu nola bukatu diren azken urteetan. Hori guztia ekiditeko aukerak baditu Udalak. Asmo pixka batekin dena da posible»

koak, eta azken egunetan denboraz larri ibiltzen gara. Hala ere, izaten dugun jarrerarekin, ideiarik kutreenari bere onena ateratzen diogula uste dugu, eta bikain pasatzen dugu. Bazkariak ordea, egun osoan lagunen artean egoteko aitzakia ematen digu. Goizeko probetatik gauera arte geratzen den hutsune hori lotzeko haria da.

Gau ala egunekoak zarete? Ez diogu gaueko parrandari ezetz esango, eta, gauero txosnetan ikusiko gaituzuen arren, egunarekin geratzen gara saninazioetan. Oso kalezaleak gara, horregatik, jaiek arrazoi gehiago ematen digutelakoan, eta egunak duen egitaraua aitzakiatzat harturik, eguna nabarmenduko genuke.

Zelan baloratzen duzue festak prestatzen dabilen jai-batzordearen lana? Ezinbestekoa. Jaiegunen batean pausatu beharko ginatke denok eta ingurua aztertu; talde txiki batek jai erraldoi bat antolatzeko duen kapazitatea mirestekoa eta, batez ere, eskertzekoa da.

Pertsona gutxiak parte hartzen dute horretan; etorkizun hurbilean zuen burua ikusten duzue jaiak antolatzen? Herriarekin konpromiso eta inplikazio handia dugun kuadrilla garena uste dugu, herrian dauden hainbat ekimenetan laguntzeko prest azaldu ohi gara beti. Argi dago kasu honetan konformatzerik ez dugula, eta, jaien antolakuntzan kuadrilla guztion inplikazioa areagotu dadin, batzordeak denon arteko hausnarketa bat merezi duela.

Ildo horretan, txosnak ixteko ordua nahikoa dela deritzozue? Lau egun soilik irauten duen jai batzuetan txosnak girotzen duen musikarekin horren zorrotz jokatzekak desesperantea iruditzen zaigu, batez ere, musika baimena 03:30ak arte irauten duen egunetan.

Ondorioz, juergarako gogoa dugun herri honetako gazteok behartuta egoten gara gaur-pasa era «desegokian» egitera. ◀



Saninazioak Uztailaren 28tik 31ra

Uztailak 28, eguena

- 18:00** Pregoia irakurriko du Serbesa eta Askatasuna kuadrillak, 2019ko kuadrilla-txapelketaren irabazleak, San Nikolas plazan; ikurrinari omenaldia eta txupina botako dute falta direnen omenez, liburutegiko balkoitik.
- 18:30** Kuadrillen jaitsiera, San Nikolas plazatik hasita.
- 20:30** XVIII. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Tellagorri plazan.
- 20:30** Kontzertuak Ameztu inguruan.
- 20:30** DJ, Katea inguruan.
- 22:00** Zenezuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 22:00** Kontzertuak: Clyton eta Skabidean, San Nikolas plazan.
- 23:00** Kontzertua: Laguna Goons, Kasino plazan, bertako tabernarien eskutik.
- 00:00** Plater-irekiak, txosna-gunean.

Uztailak 29, barikua

Egun osoan zehar, zirkua, herriko plazetan.

- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 11:00-13:30** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, tailerrak eta puzgarriak, Biotz Alai plazan.
- 11:00** 1. Gazterdi Txapelketa, herri kirolak, San Nikolas plazan.
- 11:00** Umeentzako ipuin kontalaria Oxford Academy-ren eskutik, Teilagorri plazan.
- 12:00** Umeentzako ikuskizuna, Tellagorri plazan, Bizarra Lepoan elkartearen eskutik.
- 12:00** Xakea, Telletxe plazan.
- 12:00** Gazteentzako errugbia eta hockeya, Telletxeko errepidean.
- 12:30** Igel-toka eta tiragoma-txapelketa, Katean, Salsidu tabernaren laguntzagaz.
- 12:30** Kuadrillentzako herri kirolak, San Nikolas plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasinon.
- 13:00** Koreografia, Katean.
- 13:00** Marianito-pintxada, kuadrillen frogan zehar, San Nikolas plazan.

- 15:00** Gazte-bazkaria, San Nikolas plazan.
- 16:00** Zuriketan Beltz kontzertu akustikoa, San Nikolas plazan.
- 17:30** Buruhandiak, Sarrikobasotik abiatuta. Ibilbidea: Sarrikobaso, Algortako Etorbidea, Tellagorri, Torrene, Telletxe eta buelta Sarrikobasora.
- 17:30** Herri Kirolak, Telletxe plazan.
- 18:00** Nagusien luncha, Zabala eskolan.
- 18:00** Skapaie elektrotzaranga, San Nikolas plazatik abiatuta.
- 18:30** Ume eta gazteen jaitsiera, Areatxu fanfarreagaz.
- 19:00** Nagusien dantzaldia, Trio Menta taldeagaz, Zabala eskolan.
- 19:00** Kontzertuak: Txekoslovakia eta Celeste, Katean.
- 19:30** «Nork jan saltxitxa gehien?», Txinuk tabernaren eskutik, Ameztu inguruan; aurretik izena eman beharko da.
- 19:30** Umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Biotz Alai plazan.
- 22:00** Gazteentzako DJa, Tellagorri.
- 21:00** Kontzertuak Ameztu inguruan,
- 22:00** Zenezuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 23:00** Kontzertua: La Tokokera, Kasino plazan, bertako tabernarien eskutik.
- 23:00** Kontzertuak: Zitzada Rlantz eta El Txefa, San Nikolas plazan.
- 23:00** Kontzertuak, txosna-gunean.

Uztailak 30, zapatua

Egun osoan zehar, zirkua, herriko plazetan.

- Getxoko Estropaden XLIV Ikurriña- J.A. Agirre Lehendakariaren XVIII. Omenaldia
- 08:30** XXI. Txipiroi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai plazan.
- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 10:00** Algortagraff 4. edizioa, graffiti-erakustaldia, herrian zehar, eta umeentzako graffiti-tailerra, San Nikolas plazan: musika-eskolako plazan (kotxea), Kasino (furgoneta), Zabala kalean (furgoneta) eta Aretxondo-Basagoiti etorbidea bidegurutzean (karabana).
- 11:00** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxe plazan.

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31



aldai

Itñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

- 11:00** Umeentzako moto-lasterketa, Tellagorri plazan.
- 11:30** 1. Gazterdi txapelketa, rally desafioa, Telletxe plazan.
- 11:45** Umeentzako apar-festa, Telletxe plazan.
- 12:00** Txalaparta erakustaldia, Kasino plazan.
- 12:00** Weepah Sound System, Muxikebarri Antzokiaren ondoko plazan egun osoan zehar.
- 12:30** Zumba, San Nikolas plazan.
- 12:30** Rally-desafioa, Telletxeko errepidean.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasinon.
- 13:00** XXI. Txipiroi Txapelketaren lapikoen aurkezpena, Biotz Alai plazan.
- 13:00** Kimetz abesbatza, Katean.
- 13:30** Txalaparta-tailerra, Telletxe plazan.
- 15:00** Gazteen eta helduen kuadrillen bazkaria, San Nikolas plazan.
- 17:00** Mus txapelketa, Abian Kultur Elkartean. Izen ematea, dohainik.
- 17:00** Elektrotzaranga-fanfarrea, Katean.
- 17:30** Txipiroi Txapelketaren sari-banaketa eta giro berezia, Biotz Alai plazan.
- 18:00** Ume eta gazteen Kantxa Kirol Moda Krossa.
- 19:00** Musika talde gazteen maratona, Katean.
- 19:00** Odoloste-jan txapelketa, Baster tabernaren eskutik, Kasino plazan.
- 20:00** Saninazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bideetatik Ereaga hondartzako barraketaraino. Iristean, txistulariak, trikitilariak eta zezensuzkoa, Isidroren omenez.
- 20:00** Kontzertuak, Ameztu inguruan.
- 21:00** Kontzertuak, txosna-gunean.
- 21:00** Weepah Sound System, Telletxe plazan
- 23:00** Kontzertuak: New York Ska Jazz Essemble, Kasino plazan.
- 22:00** Kontzertuak: Labana eta Neallta Fola, San Nikolas plazan.

Uztailak 31, domeka

Egun osoan, zirkua, herriko plazetan.

09:30 Diana, herrian zehar.

- 11:00-13:00** Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, Biotz Alai plazan.
- 11:30** Dantzari-taldeen bilkura, Kasunen.
- 12:00** Dantzari-taldeen kalejira. Ibilbidea: Kasune, Salsidu, Bolue eta Telletxe.
- 12:00** Meza nagusia eta ohorezko aureskua, San Inazio elizan.
- 12:00** 74. Getxo Zirkuitua - 18. Ricardo Ochoa Memoriala. Irteera Bilbon eta helmuga Arkotxan egongo dira, Foruen kalean.
- 12:30** Euskal dantzen agerraldia, Telletxe plazan.
- 12:30** 1. Gazterdi txapelketako pintxo hotzen proba, San Nikolas plazan.
- 12:30** Kuadrillentzako tortilla-txapelketa irekia, San Nikolas eta musika eskola plazetan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasino plazan.
- 13:00** Trikitilariak, Katean.
- 13:30** Umeentzako ur-gerra, Biotz Alai plazan.
- 15:00** Bertso-maratoia.
- 17:30** Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura, Kasunen.
- 18:00** 1. Gazterdi txapelketako aktuazioa, Tellagorri plazan.
- 18:00** Erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira. Ibilbidea: Kasune, Sarrikobaso, Katea (erraldoien lehenengo dantzaldia), Algortako Etorbidea, Kasino plaza (erraldoien bigarren dantzaldia), Basagoiti Etorbidea, Torrene, Telletxe errepidea (erraldoien hirugarren dantzaldia).
- 19:00** Bertso-saioa, Katean.
- 20:00** Kuadrillen erakustaldi-saio irekia, San Nikolas plazan.
- 20:30** Larraindantza, Kasino plazan.
- 22:00** Erromeria tradizionala, Kasino plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Xabier Imaz *Pechotora* zenaren omenez, Telletxen.
- 22:00** XXI. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren eta Kuadrilla Txapelketaren sari-banaketa, San Nikolasen. Horren ostean, kontzertua Bidean erromeria taldeagaz.

Abuztuak 1, astelehena

04:30 Sokasalto txapelketa.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu HIRUKA.eus-en.

estudio.k

hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA

www.estudiok.es 944911332

ner group

irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 - ALGORTA

bai euskarari

Getxo eta Leioa Itzubaltzeta/Romoko eta Pinuetako jai-batzordea

«Aurten, arazo ugari izaten

IKER RINCON MORENO ▶

Uztailaren 31an hasi, eta abuztuaren 2tik 7ra segiko dute aurten Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak. Ohi legez, orriotan aurkeztu gurako genuke egun horietarako ospakizunen egitaraua, baina, azken orduko arazoak tarteko, jai-batzordeari ezinezkoa izan zaio lerrook idazteko momenturako ezer finkatuta edukitzea. Jai-batzordeko lagunek diotenez, aurten, Leioako eta Getxoko udalek «traba burokratikoa» asko jartzen ari zaizkie, baina, iragarri dutenez, «jai herrikoi, parte-hartzaile, belau-naldiarteko eta festazaleak» berreskuratuko dituzte garaiz. Izan ere, «*Romo is diferent*».

Urte bi igaro dira azkenengo jai «normalak» antolatu zenituztenetik. Gogoak dituzue kaleak dantzan jartzeko berriro ere? Bai, noski; irrikan gaude; herriak jaiak behar ditu.

Zelakoak izaten ari dira jaiok antolatzeke lanak? Borrokan eta gogotsu ibili arren jaiak prest edukitzeko, egia esan, oso gogorra izaten ari da prozesua. Izan ere, udaletako burokrasia gogortzen hasi da aurten, traba asko jartzen, eta gero eta zailagoa izaten ari zaigu herriko jaiak antolatzea. Ulertzen dugunaren arabera, traba horiek guztiek helburu bat dute udaletako baten eta Babes Zibilaren partetik, eta hori da gaur egun dugun herriko jaien moldearekin amaitzea.

Pandemia garaian ere ez zarete geldirik egon, eta birtualki bada ere, jai giroa mantentzen saiatu zarete. Zelako balorazioa egiten diozue horri? Udalerria zegoen bezala zegoen, eta, oinarrian, gure motibaziorik handiena zen Getxoko Udalak zabaldu zuen diru-laguntza jasotzea kultur eragileei laguntzeko; izan ere, jaiak eta ekitaldiak bertan behera egonda, lanik gabe ibili dira bi urte horiek. Beraz, esan bezala, horixe izan da gure motibaziorik handiena; izan ere, jai birtual batzuk ez dira guk nahi eta egin ohi ditugun jaien parekoak.

Aurten, inoiz baino gogotsuago hartuko dituzte auzokideek ospakizunak. Zer duzue prestatuta eurentzako? Zerbait berezirik duzue buruan? Egitaraua, orokorrean, beste urte batzuen antzekoa izango da; izan ere, jaiok finkatuta daude, jendea ohituta dago ho-



Gaur egun, 11 lagunek osatzen dute jai-batzordea, baina, diotenez, jaiok

«Gure kezkarik handiena da jaietan egon daitezkeen eraso matxistak. Protokoloak eta ekintza ezberdinak izango ditugu martxan eraso horiek ekiditeko eta erasoak pairatu dutenei laguntza eskaintzeko»

riei eta hori bilatzen du; baina, egia esan, berritasun batzuk ere izango ditu, bai. Adibidez, aurten zuzeneko bakarrizketak izango ditugu, eta, gainera, bestelako kultur eredu baten aldeko apustua egiten saiatzen ari gara. Azken finean, guk ahalik eta programarik zabalena egin nahi dugu.

Zelan definituko zenituzkete Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak? Herriko jaiak dira, parte-hartzaileak, belau-naldiartekoak eta, batez ere, oso festazaleak. *Romo is diferent*.

Diozuen bezala, festok, nolabait, bereziak dira, eta, gainera, bi udalerrri ezberdinetako auzo bi batzen dituzte. Zelakoa da udal biak duzuen koordinazioa? Bi udalen arteko koordinazioa kudeatzea da zailena; egia da batek besteak baino erraztasun gehiago eskaintzen digula, gobernu-talde biak alderdi berekoak izan arren; oso arraroa da. Halere, oso zaila da gauza guztiak legalki eskatzen dizkiguten bezala antolatzea eta betetzea.

ari gara jaiak antolatzeke»



k prestatzeko jende gehiago beharko dute hurrengo urteetarako.

Zenbat lagunek osatzen duzue jai-batzordea gaur egun? Etenaldiak eragina izan du horretan? Hau da, jendea batu edo «jubila-tu» egin da? Gaur egun, 11 pertsona gaude jai-batzordean, eta, duela 10 urte, aldiz, 25; pentsa. Egia da pandemiaren ondoren jende

Egitaraua

Uztailaren 31n eta abuztuaren 2tik 7ra izango dira aurtengo Itzubaltzeta/ Romo eta Pinuetako jaiak. Lerrook idazterako, egitaraua ez zegoen prestatuta eta, beraz, dagoenean beheko QRa eskaneatuta eskuragarri izango duzue.



batek alde batera utzi duela jai-batzordea, ba-koitzak bere zereginengatik.

Zer esango zeniekete auzokideei festetan parte hartzeko? Datorren jendeari baino, gure ustez beharrezkoa duguna da jai-batzordea jendea batzea. Festara batzeko ez dago inor gonbidatu behar; horiek antolatzeke, ordea, bai. Zailagoa da.

Ohi bezala, kuadrillak izango dira jaietako bihotza eta arima. Zenbatek parte hartuko dute aurtien ospakizunetan? Uste dugu hiruzpalau kuadrilla berrik parte hartuko dute la aurtien, baina baten bat aurreko kuadrillen arteko batuketa izango da. Hala, orokorrean, txiki eta handien artean, 15-20 kuadrilla artean egongo dira.

Zergatik dira horren garrantzitsuak horiek jaietan? Azken finean, esan bezala, jaien arima dira, eta behar-beharrezkoak dira jaietan, baita auzoko eragileak eta txosnak ere.

Zelan aurreikusten duzue izango direla 2022 honetako jaiak? Zintzoki, larrituta gaude egon daitekeen segurtasunarekin. Gure kezkarik handiena, gauzak ondo irten ala ez baino, egon daitezkeen eraso matxistak dira. Jaietan emakume askok askotariko eraso matxistak pairatzen dituzte, zoritxarrez, eta horixe da gure kezkarik handiena. Hori dela eta, protokolo eta ekintza ezberdinen bitartez, horiek ekiditen saiaturako gara, eta, beharrezkoa denean, erasoak pairatu duten pertsonen laguntza eskaini. ◀



Gorliz Andramariak

Gorlizko paellen jaia

Santiago jaiak ez dira Gorlizetik udan dituen jai bakarrak, abuztuaren hasieran gorliztarak Andra Mari baselizaren inguruan elkartzen baitira

Abuztuaren 5etik 7ra bitartean, gorliztarak Andra Mari baselizaren inguruko landetan elkartuko dira. Urtero LX. Paella Txapelketa izango da jai horietako plater nagusia, urtero 60 hautagai baino gehiago aurkezten baitira arroz lehiaketa horretara. Hala ere, horren aurretik, beste bi jaiegun prestatu dituzte hainbat jardueragaz; besteak beste, barikuan, abuztuaren 5ean, goizetik hasiko da jaieguna eta iluntzean Oxabi taldearen kontzertua egongo da. Hurrengo egunean Herri Krosagaz jarraitu eta tortilla-txapelketa eta La Topadora taldearen kontzertua izango dituzte. ◀

Abuztuaren 5etik 7ra

Abuztuak 5, barikua

- 10:00** Txupina bota eta kalejira Gorlizko Andra Mari baseliza ondoko landetan.
- 11:00** Meza Agirre Andra Mariren ohorez.
- 11:45** Ohorezko Aurrekua, eta Gorlizko Aratz dantza-taldearen dantzaldia.
- 12:45** Luntxa ermita atarian jubilatuentzat.
- 18:00** Herri Kirolak.
- 20:00** Kontzertua: Gaupasa
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:30** Mrs Klam eta Oxabi taldeen kontzertua.

Abuztuak 6, zapatua

- 10:00** XXXIII. Herri-krossa.
- 11:00** XLVII. Tortilla Txapelketa familia eta gazteentzako.

12:00 Umeen parkea.

13:00 Tortilen aurkezpena epaileek dastatzeko, jarraian, sari-banaketa.

17:00 Ur parkea.

20:00 Diskofesta umeentzat.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kontzertua: La Topadora.

Abuztuak 7, domeka

11:00 LX. Paella Txapelketarako izen-ematea kioskoan.

12:00 Trikitixa.

13:00 Paellen aurkezpena, landaren erdialdean, epaileek dastatzeko.

18:00 Paellen sari-banaketa.

19:30 DJ

22:00 Zezensuzkoa eta eurten jaien amaiera.

Erandio Andramariak

Udako bigarren txanpa

Erandiogoikoko Andra Mariko jaietako zereginak egun bitan metatuko dituzte aurtur: paella-lehiaketa, dantza-erakustaldia, erromeria...

Aurtengo Erandiogoikoko jaietako bigarren hitzordua abuztuaren 14an hasiko da, Andra Mari festakaz. Domeka izan arren, hurrengo eguna ere jaieguna denez, abuztuaren 15ean festek ohiko gastronomia-lehiaketagaz jarraituko dute. Egun horretan, ikusmin handia egongo da jakiteko zein kuadrillak egin duen arrozik dastagarriena. Horretaz gain, umeek ederto pasatzeko jarduerak izango dituzte eta Goi-Alde Dantza Taldearen ikuskizuna ere egongo da. Ondoren, paella-lehiaketan saririk irabazi ez dutenak bigarren aukera izango dute kuadrillen arteko jolasetan. ◀

Abuztuak 14-15



Abuztuak 14, domeka

- 19:00** Trikipotea, eta, arratsaldean zehar, umeentzako puzgarriak.
- 21:30** Burruntzi dastaketa.
- 23:30** Erromeria eta Dj.

Abuztuak 15, astelehena

- 11:00** Paella-lehiaketa.
- 13:00** Goi-Alde Dantza Taldearen ikuskizuna.
- 16:00** Umeen disko-festa, eta, goiz osoan zehar, umeentzako puzgarriak.
- 18:30** Kuadrillen arteko jolasak.

Berango Santodomingoak

Adin guztientzako hamaika aukera



Lau egunez, udalerriko jai nagusiez gozatzeko askotariko ekitaldiak antolatu dituzte aurten. Gainera, ohi bezala, herritarrentzako zita berezia egongo da domekan.

Santa Anakoen ostean, Santo Domingoko jaien txanda helduko da Berangora. Hala, abuztuaren 4tik 7ra bitartean, askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango dute adin guztietako berangoztarrek. Umeek haur- eta gazte-parkeak izango dituzte gozagai, Berango-Meranan, baita berotik freskatzeko ur parkea ere; nagusienek, aldiz, hamaiketakoak izango dituzte Otxandategi Dantza Taldeko umeek antolatuta. Tarteko gizon-emakumeek, eta gainontzekoek ere, beste hamaika ekintza izango dituzte aukeran: mariatxiak, txokolate-jana, erromeriak, dantza-plazak, disko-festak... Kirolzaleek ere euren tartea izango dute frontoian eta futbolekin. Lehenengo kasuan, pala eta pilota partidak izango dituzte, maila handikoak gainera. Abuztuaren 4an, egunean, omenaldia egingo diote Endika Garciari, bere azkenengo partida dela-eta. Jaiei amaiera borobila emateko, herritarrentzako hitzordu garrantzitsua egongo da abuztuaren 7an: Bakailao Eguna. ◀

Abuztuaren 4tik 7ra

Abuztuak 4, eguna

- 11:00** Binakako VII. Pala Txapelketa.
- 12:00** Meza.
- 13:00** Nagusientzako hamaiketakoak, Otxandategi Dantza Taldearen umeek antolatuta.
- 18:00** Futbol 5 Txapelketaren finalaurrekoa, IGek eta Karabiganek antolatuta.
- 18:30** Haurrentzako berbena: Xilipurdi.
- 19:00** PILOTA JAIALDIA
Partidu nagusia: Bengoetxea VI - García III vs Mendizabal III - Barturen.
Emakume Master Cup-eko finala: Aldai - Capellán vs Arrizabalaga - Gaminde.
Gainera, omenaldia egingo diote Endika Garciari bere azkenengo partidari.
- 20:30** Mariatxiak: Si Señor.
- 23:30** Kontzertua: Zelanda (Hesian ohia).
- 01:30-04:30** Disko-festa.

Abuztuak 5, barikua

- 12:00-14:00** Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 17:00-20:00** Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 19:30** Txokolate-jana.

- 20:00** Otxandategi Dantza Taldearen erakustaldia.
- 23:30** Kontzertua: The Space Octopus.
- 01:30-04:30** Disko-festa.

Abuztuak 6, zapatua

- 12:00-14:00** Birziklapen-tailerra.
- 12:30** Berango Kantari, irteera Elexaldetik. Ondoren, bazkaria: Umeak 14:30ean eta nagusiak 15:30ean. Tikitak Nagusien Etxeko tabernan daude salgai.
- 13:00** Bits-festa.
- 17:00-20:00** Gazte-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 18:00** Futbol 5 Txapelketaren finala, IGek eta Karabiganek antolatuta.
- 19:00-20:30** Dantza-plaza, Sukar taldeagaz.
- 20:30** Hanburgesa-jana.
- 23:30** Kontzertua: Juego de Damas Band.
- 01:30-04:30** Erromeria: Erruki.

Abuztuak 7, domeka

- Bakailao Eguna**
- 11:00-14:00** Ur parkea.
- 12:00** Herri kirolen erakustaldia.
- 13:00-15:00** Trikitia: Erruki.
- 18:00-21:00** Erromeria: Ekhy.

Lemoiz Andramariak

Urizarrek hartuko du Lemoizko festen lekukoa



Abuztuaren 12tik 16ra bitartean ospatuko dituzte Urizar auzoko Andra Mari jaiak aurten. Egun horietarako lemoiztar guztientzako jarduerak prestatu dituzte.

Abuztuan, kostaldetik landa-giro-ra pasako dituzte festak Lemoizen. Izan ere, hil horretako 12tik 16ra bitartean, udalerriko beste jai esanguratsuenak ospatuko dituzte Urizarren. Egun horietan, ondo pasatzeko hamaika arrazoi izango dituzte lemoiztarrek. Gainera, jarduerak antolatzeaz arduratu den jai-batzordeak festa parte-hartzaileak egiteko apustuari eutsiko dio beste behin ere.

Urtero legez, adin-tarte guztiak elkartzeko eta ederto pasatzeko hainbat jarduera egongo dira. Hasteko, jaien hasiera iragartzeko txupina bota ondoren, sardinak jango dituzte, sabela ondo beteta iluntzeko musikagaz dantzari egiteko. Hurrengo lau egunetan zeregin andana izango dute adin guztietako lemoiztarrek, beraz, ez da aspertzeko aitzakiarik egongo. Ez dira faltako ohiko paella- eta tortilla-lehiaketak, ezta karta-jokoan aritzen direnentzako mus- eta briska-txapelketak ere. ◀

Abuztuaren 12tik 16ra

Abuztuak 12, barikua

- 20:30** Txupina jaurti eta jaien hasiera.
- 21:00** Sardina-jana herrikoia.
- 22:00** Kontzertua: Mariachi Amatitan taldea.
- 23:30** Patata-dantza ume eta helduentzat, txosnan.

aurkezpena 20:00etatik 20:30era izango da.

- 21:00** Tortilla-txapelketaren sari-banaketa.
- 22:00** Kontzertua.

Abuztuak 13, zapatua

- 11:00** Kalejira trikitilariakaz.
- 12:00** XLIII. Paella Txapelketa. Paellen aurkezpena 13:30etik 14:00etara.
- 12:00-14:00 eta 16:00-18:00** Uretako puzgarriak.
- 17:00** XLII. Mus Txapelketa Perulogaz.
- 18:00** Bits-jaia.
- 20:30** Paella-lehiaketaren sari-banaketa.
- 22:00** Musika-dantzagarriak, txosnan.

Abuztuak 15, astelehena

- 11:00** Meza nagusia, Andra Mariren omenez.
- 12:00** Umeen frontenis-txapelketa, ondoren, hamaiketako parte-hartzaileentzat.
- 20:30** Saihets-jan herrikoia.
- 21:30** Bingoa.
- 22:00** Musika txosnan.

Abuztuak 16, martitzena

- 11:00** Hildakoen omenezko meza.
- 12:00** Herriko amamentzako eta aititentzako hamaiketako
- 17:00** Binakako XX. Briska Txapelketa eta LVI. Tute txapelketa. Amaiztean, sari banaketa.
- 20:00** Txokolate-edana.
- 21:30** Bingo berezia eta rifa
- 22:00** Azken traka eta 2022ko jaien amaiera.

Abuztuak 14, domeka

- 11:30** BTT Martxa txiki. Gortizko Hondarmendi taldearen eskutik.
- 17:00** XLVII. Nazioarteko Tortilla Txapelketa. Tortillen



EUSKARA, AUKERA PAREGABEA



Errotulua ipintzeko
dirulaguntzak



Itzulpen zerbitzua



Maketatze- eta
inprimatze- zerbitzua



Doako materiala
zure saltokirako



Langile euskaldunak
behar dituzu?



Hizkuntza-aholkularitza
pertsonalizatua



Euskara ikastaroak merkataritzako
eta ostalaritzako langileentzat

*Egin zaitez Euskararen Laguna Saltokia
eta gozatu abantailez!*

☎ 688 665 112

94 466 00 10/11

gehi@getxo.eus

euskara.zerbitzua@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskara

*Sartu gure
katalogoan!*



Erendio San Lorentzo jaiak

Ulpiano Astrabuduara bueltatuko da festetarako

Eskualdeko astorik famatuena Astrabuduara bueltatuko da, bi urte jaiak iragarri gabe egon ostean. Aurten, abuztuaren 5etik 10era bitartean egongo da gure artean, eta auzoko jai-batzordeagaz batera prestatu duen egitarau ederra dakar ederto pasatzeko hainbat jardueragaz. Aukera galduko duzu?

Abuztuaren 5etik 10era

Abuztuak 5, barikua

- 11:00** Txikitxupin, Josu Muruetan.
- 11:30** Txikitxupin, Mendigurenn.
- 11:45** Ongietorria Ulpianori.
- 19:00** Jaitsiera.
- 20:30** Pregoia eta txupinaren jaurtiketa, DJ Pedrolusek musika jarriko du.
- 20:45** Larraín dantza.
- 22:00** Diskoteka: DJ Munza eta DJ Eraso, Coppi eta Etxegorri tabernetan.
- 22:30** Nagusientzako musika dantzagarria, Josu Murueta plazan.
- 22:30** Kontzertuak: La Basu, Mendiguren plazan.
- 23:00** Kapelaren lehiaketa, Josu Muruetan.

Abuztuak 6, zapatua

- 11:00** Txikileku.
- 11:00** Marmitako-lehiaketaren izen-ematea.
- 12:00** Umeentzako kirolak.
- 12:30** Kantagunea.
- 13:30** Marmitakoen aurkezpena.
- 17:00** Puzgarriak.
- 17:00** XIII. Igel-toka txapelketa.
- 18:30** Herri-lasterketa.
- 19:30** Txorizo jana.
- 22:00** Diskoteka, trabudu plazan.
- 22:30** Kontzertua: Modus Operandi, Mendiguren plazan.
- 23:00** Guatekea, Josu Muruetan.
- 23:30** Erratza lehiaketa, Josu Muruetan.

Abuztuak 7, domeka

- 10:00** XXXVI. Arrantza-lehiaketa.
- 11:00** Paella-lehiaketaren hasiera.
- 12:00** Txiki-ginkana.
- 13:00** Herri-kirolak.
- 17:30** Ginkana helduentzako.
- 18:20** Txapel-jaurtiketa.
- 20:30** Kontzertua: Bilbainadak.



- 22:30** Kontzertuak: Extopa eta DJ Carmen de la Fuente, Mendiguren plazan.

Abuztuak 8, astelehena

- 11:00** Tailerrak, puzgarriak eta *trivial*-txiki.
- 15:00** Herri-bazkaria, Mendiguren plazan.
- 16:30** Bingoa.
- 17:00** Puzgarriak
- 19:00** Kontzertua, Josu Muruetan.
- 20:00** La Mara, Etxegorri tabernan.
- 20:00** Kontzertua: Tierra Kritikal, Mendiguren plazan.
- 22:30** Elektrotxaranga, Mendiguren plazan.
- 00:45** Kontzertua: Jonan JDJ.

Abuztuak 9, martitzena

- 11:00** Txupinaren jaurtiketa
- 11:00** Tortilla-txapelketaren izen-ematea.
- 11:00** Puzgarriak eta tailerrak.
- 11:30** Moto GP, Etxegorri tabernan.
- 12:00** Tarta-lehiaketa.

- 13:30** Tortillen aurkezpena.
- 16:30** Mus-txapelketa.
- 17:00** Puzgarriak.
- 18:00** Olgetan Solas familiarentzako jolasak euskaraz.
- 18:30** Disko-festa, Etxegorri tabernan.
- 20:00** Kalejira feminista.
- 20:00** Kontzertua, Akeitetxen.
- 22:15** Play-back txapelketa.
- 00:30** Erromeria.

Abuztuak 10, eguaztena

- 11:00** Kalejira gaiteroakaz.
- 11:00** Puzgarriak eta tailerrak.
- 12:00** Meza.
- 13:00** Soka aureskua.
- 13:00** Musika Bandaren kontzertua.
- 19:00** Trabudu Dantzari Taldearen dantzaldia.
- 21:00** Kuadrillen bideoen emanaldia.
- 22:00** Bakarriketa, Josu Muruetan.
- 23:00** Olinpiaden sari-banaketa
- 23:45** Ulpianori agurra.



Getxo San Lorentzo Azoka

Abuztuaren 10ean egingo dute azoka Algortan

Bi urteko etenaldiaren ostean, Getxoko ospakizunik herrikoienak baserrietako produktuak hurbilduko ditu Algortara abuztuaren 10ean.

Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazek hartuko dituzte berriro ere Getxoko Kultur Etxeak eta BBK Fundazioak antolatzen duten azoka honetako saltokiak. Merkatua goizeko 10:00etan zabalduko dute, eta 14:30ak arte egongo da martxan.

Ohi bezala, bisitariek euskal baserrietako produktu ugari erosi ahal izango dituzte San Lorentzo Eguneko azokan: barazkiak, frutak, gaztak, pateak eta ahatekiak, ogia, pastelak, eztiak, txokolatea, sagardoa eta txakolina eta landare apaingarriak, besteak beste, nekazarien eta ekoizleen produktu ekologikoak ahaztu gabe.



Goizetik jendetza batu ohi da azokako aukerak ez galtzeko.

ABESBATZAREN KONTZERTUA. San Lorentzo jaieguna borobiltzeko, bertoko Biotz-Alai abesbatzak ohiko kontzertua eskainiko du Muxikebarrin, 22:00etan. Saiora joateko au-

Azokak 10:00etan irekiko ditu ateak, 14:30ak arte

kera ederra izango dute gura dutenek, gonbidapenak dohainik jaso baitaitezke Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean, uztailaren 5etik aurrera. ◀

Gorliz San Lorentzo jaiak

Gorliztarrek gauera bitarteko jaieguna egingo dute Gandia plazan

Gorlizten festek ez dute atsedenik emango eta, gainerako festakaz batera, abuztuaren 10ean ospatuko diren Gandia plazako ospakizunak ere bueltatuko dira aurretik.

Jaiak bertan behera geratu aurretik, urtero egiten zen legez, San Lorentzo Egunean goizetik gauerako programa antolatuko dute Gorlizko txoko horretan. Aurretik, jaieguna eguaztenean izan arren, festak berdin-berdin ospatuko dituzte. Hala, 11:00etan, txupinaren botatzeagaz abiatuko dute egun osorako prestatu duten egitarau ederra. ▶



Saiheski-jana izango dute.

Egitaraua

Abuztuak 10, eguaztena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 11:30 Umeentzako parkea.
- 14:00 Saiheski-parrillada eta sagardoa.
- 17:00 Umeentzako parkea.
- 20:00 DJ erromeria.
- 22:30 Zezensuzkoa.

Portu Zaharreko jaiak Abuztuaren 10etik 14ra



Abuztuak 10, eguaztena

- 17:00** Txupinaren jaurtiketa eta umeen kuadrillen jaitsiera, Kasino plazatik abiatuta.
- 18:00** Eusko Diskoteka Paco eta Urtza taldeagaz, Portuko plazan.
- 19:30** V. Boxeo ikustaldia, Izarrak Boxing Klubak antolatuta, zelaian.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratzun.
- 19:30** Kuadrillen ikuskizuna, agertoki nagusian.
- 21:00** Zuzterrak, Portuko plazan.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 23:00** Kontzertua: Gora Etorri, gazte txosnan.
- 01:30ak arte** Aurah Sin Drag Party, agertoki nagusian.

Abuztuak 11, eguena

- 11:00-14:30** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepedean.

- 11.00-13.00** Txikientzako tenis ikastaroa, Tenis Playa txosnaren eskutik.

- 17:00-19:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepedean.

- 17:00** Txupinaren jaurtiketa eta kuadrillen jaitsiera gasolindegizaharretik hasita. 2019an irabazi zuen Pangak kuadrilla izango da lehena jaisten Txoa eramateko.

- 21:30** La Tropa, Portuko plazan.

- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.

- 22:00** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

- 22:00** Pregoiairen irakurketa, 2019ko irabazle Pangak kuadrillaren eskutik.

- 22:30** Kontzertua: Gorian, agertoki nagusian.

- 23:00** Mamarratxea Gaua: Virgin Mary, gazte txosnan.

- 00:00** Kontzertua: Supercremalleras, agertoki nagusian.

GetxoGaso
REPSOL

GetxoGason Euskararekin bat!
Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- GnG tailerra
- Denda eta okindegia
- Solaguren Jatetxea
- Garbiketa gunea

944 301 500 | Getxo eta Berango artean

MARSUN
ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA

UMEEI ILE EBAKITZEA 6,40€
AURPEGI HARI-DEPILAZIOA

Ordutegi jarraia:
Asteazkenak, 9:30-19:00
(astelehenak itxita)
Zapatuak, 9:00-14:00

ALANGOETA 6, ALGORTA TEL. 944 608 222
www.peluqueriamarsun.es

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

944 307 696
Bidebarri 27, beheko eskuina · ALGORTA

Abuztuak 12, barikua

- 11:00-14:30** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean.
- 11:00** Umeentzako pintura-lehiaketa, izen-emateak 12:00ak arte.
- 11:00** Igel-toka eta tiragoma-lehiaketa.
- 11:30** VII Rugby Tokata Lehiaketa, zelaian, Getxo Rugby taldearen eskutik.
- 12:00** Umeen estropada ergometroetan, Arrauneko txosnaren aurrean, Getxo Arraun taldeak antolatuta.
- 13:00** Kantu poteoa, Portuko plazan
- 14:30** Gazte bazkaria, gazte txosnak antolatuta.
- 16:00** Buruhandiak eta txistulariak, Agurra taldearen eskutik. Tellagorritik Portu Zaharrera.
- 15:30-16:00** Antzarrak kuadrillari omenaldia «kalimotxo» izena asmatu zutenetik 50. urteurrenean.
- 16:00** Antzar-jasoaldiak.
- 17:00-19:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean.
- 19:00** Herri Kirolen aizkora txapelketa. Getxo Herri Kirol Taldeak antolatuta.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratzun.
- 19:30** Zumba Rosi, Ylenia eta Ritagaz, agertoki nagusian.
- 19:30** Bertso-saioa, Portuko plazan.
- 21:00** Satte&Guereñu. Sweet Soul Music, Portuko plazan.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 22:00** Plater irekiak, gazte txosnan.
- 22:00** Dantzak murrutzar handian, Itxas Argiak antolatuta.
- 23:00-02:00** Kontzertua: Urrats erromeria, agertoki nagusian.

Abuztuak 13, zapatua

- 11:00-14:30** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean.
- 17:00-19:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean.
- 10:00** Sokamuturra, hondartzatxoan.
- 11:00-13:30** Umeentzako jolasak, Portuko plazan.
- 11:00-14:00** Hasiberrientzako skate ikastaroa, beheko errepidean.

- 13:00-15:00** Kulturen arteko dantzak eta herri-jokoak, Bilgune Feministaren txosnak antolatuta
- 15:30** Bazkari feminista, Bilgune Feministaren txosnak antolatuta.
- 16:00** Buruhandiak eta txistulariak, Agurra taldearen eskutik. Tellagorritik Portu Zaharrera.
- 16:00** Umeen Arrantza Txapelketa erriberan. Sarien banaketa 19:30ean izango da, jai-batzordearen txosnan.
- 17:00-19:00** DJ La Hija de Napal, Bilgune Feministaren txosnan.
- 17:00-19:00** Skate erakustaldia eta hasiberrientzako klaseak, beheko errepidean.
- 17:00** Umeentzako kukaña, horma txikian. Ondoren, jostailuzko ahateak askatuko dituzte, eta nagusientzako kukaña eta salto txapelketa, hormatzar handian.
- 18:00** Bits-festa, beheko errepidean.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratzun.
- 19:00** Dantzaplaza Dangiliske taldeagaz, agertoki nagusian.
- 21:00** The Binilo's, Portuko plazan.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 21:30** Kontzertuak: Arene 6, Mrs.Klams eta DJ Maruxak, gazte txosnan.
- 22:00** Tekno Gaua: Sally Rous eta Hombre Bosque, agertoki nagusian.
- 00:45-03:00** Packeme, agertoki nagusian.

Abuztuak 14, domeka

- 09:30** Marmitako Txapelketaren izen-ematea. Oharra, ezin da agertoki nagusia erabili marmitakoak egiteko.
- 12:00** Marmitakoak entregatzeko hasiera, 14:00ak arte, Etxetxun.
- 16:00** Erruki erromeria, gazte txosnan.
- 18:00** Ginkana, gazte txosnan.
- 18:00** Bertsolariak, Portuko plazan.
- 18:30** Marmitako Txapelketaren sari-banaketa, Portuko plazan.
- 20:00** Kuadrillen Txapelketako sari-banaketa, agertoki nagusian.
- 21:30-23:30** DJ PSK, agertoki nagusian.
- 00:00-03:00** Kontzertua: Garilak, agertoki nagusian.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoa emango dugu HIRUKA.eus-en.



Getxo Portu Zaharreko jaiak

Kalimotxoaren sortzaileei omenaldia egingo diete abuztuaren 12an



IKER RINCON MORENO ▶

Mendeurren erdia igaroko da aurtengo udan Algortako Portu Zaharretik mundu osora zabaldu den konbinatuaren izena asmatu zenetik: Kalimotxo. Horrexegatik, 50. urteurren hori gogoan izateko, Portu Zaharreko jai-batzordeak omenaldia egingo dio daborduko RAEk bere hiztegian lekua egin dion izen hori munduratu zuen taldeari, Antzarrak kuadrillari, hain zuzen ere.

Zalantzarik gabe, gure inguruetan gehien errotutako edarietako bat da kalimotxoa; jai eta tabernen klasiko bihurtuta, gure herrietatik mundu zabalera hedatu dena.

Egia da Coca-Cola eta ardo beltza nahastutako konbinatua aski ezaguna zela Algortako Portu Zaharrean edabe horri izena jarri ziotenerako, hala ere, lekuaren arabera, ezizen bat edo beste jartzen zitzaion horri: Errioxa Librea, Mochete, Tincola, Pobreen Kuba Librea, Langilearen Kubata... Hala ere, Kalimotxo izenak denak baztertu zituen 1972ko uda hartatik aurrera.

Ahoz aho hasieran, eta liburuxka batean gerora –*El invento del kalimotxo y anécdotas de las fiestas*–, zabaldutakoaren arabera, 1972ko abuztuaren 12an, Portu Zaharreko

1972

urteko abuztuaren 12an
asmatu zuen Kalimotxo
izena tokiko Antzarrak
kuadrillak.

2.000

litro ardo beltz erosi
zuen kuadrilla horrek
jendearen artean
saltzeko; ozpinduta
zeuden, eta Coca-Cola
freskagarriagaz nahastu
behar izan zuten hori
dena saltzeko.

50

urtemuga horri
omenaldia egingo
dio jai-batzordeak
abuztuaren 12an.

San Nikolas jaien erdi-erdian, jaio zen berba hori. Hitz-jokoa Antzarrak kuadrillak asmatu zuen, auzoko festak antolatzeke ardura hartu zuen taldeak, hain zuzen. Ospakizunetarako 2.000 litro ardo beltz erosi zuen, baina, ozpinduta zeuden. Protagonistek kontatzen dutenez, mediku ezagun batek esan ei zien ez zela kaltegarria ardo hori edatea, baina oso zapore desatsegina zuela. Hala, hainbat proben ondoren, Coca-Cola freskagarriagaz proportzio berdinetan nahastuta, edariaren zapore txarra ezkutatzeko modua lortu zuten.

Marketin saiakera egokia egiten saiatuta, konbinatu berriari izen propioa bilatzeari ekin zioten, Antzarrak kuadrillako lagun bat agertu zen arte. Erandiokoa zen hura, eta *Kalimero* goitizena zuen, baina guzti-guztiek deitzen zioten *Kali*. Iturriek diote «itsusi samarra» zela, eta, agertu zenean, baten batek esan zuela euskaraz itsusia «motxo» dela. Hala, erandioztarraren goitizena eta adjektiboa nahastuta, daborduko mundu osoan erabiltzen den izena sortu zuten: Kalimotxo; kuadrilla osoak onartu zuen proposamena, aho batez.

Aurten, 2022an, 50 urte beteko dira sormen-prozesu arrakastatsu hori burutu zenetik, eta, horri aitortza egiteko, kuadrillari omenaldia egingo dio jai-batzordeak Portu Zaharreko jaien erdian, abuztuaren 12an, eguerdiko 15:30ean. ◀

Plentzia jai-batzordeko kideak

«Festa lasai, alai eta parte-hartzaileak izatea espero dugu»

IKER RINCON MORENO ▶

Orain hiru urte, 2019an, ospatu zituzten azkenengo jaiak Plentzian. Ohi legez, auzoz auzo eta plazaz plaza gozatzen dituzte festok hiribilduan: sankristobalak, karmenak, madalenak, sanantolinak... Hamaika aukera izaten dituzte plentziarrek, eta bertara joandakoek, ospakizunez gozatzeko. Hala ere, guztiei hasiera ematekoa da San Juan Egunaren bezpera; suaren inguruan dantzan eta kantuan jarri, atzean utzitako une txarrak erre eta udaldiko jaietara begira jartzen dira plentziarrek. Hiru urte azkenekoz horiek antolatu zituztenetik, eta, hori dela-eta, ez da erronka makala izan jai-batzordeak gainditu behar izan duena aurtengo jaien egitarauak osatzeko. Jakin dezagun zer-zelakoak izan diren beharrok.

Hiru urte igaro dira azkenengo jaiak antolatu zenituztenetik. Zelakoak izan dira 2022 honetan udalerriko festak antolatzeko lanak? Kostata, baina dena martxan jartzea lortu dugu. Gogorra izan da bidea, izan ere, urte hasieran oraindik ez genekien jaiak egin ahal izango genituen ala ez. Ondorioz, atzerapenak direla medio, arazotxoak izan ditugu ekintza batzuk antolatzeko orduan. Antolaketa-lana erraza dirudi, baina inondik inora; horren atzean ordu asko eta asko daude.

Berezitasunik izango dute aurtengo ospakizunek? Jaiak ospatzea lorpen bat izango da bere horretan. Bereziak izango dira, bai, bi urte barik egon ondoren guztiok itxaroten ditugun jai-jarduerak bueltatuko direlako.

Plentzian, udan, hainbat auzotan egiten dituzte jaiak. Zelan antolatzen zarete hori guztia antolatzeko? Taldeak lan izugarria egin behar du. Horretarako, gainera, herriko talde, klub eta elkarteek laguntza eskatzen diegu, eta lortzen dugu ere. Horiek gabe ezin izango genuke egiten dugun guztia egitea.

Zelako harrera dute udako jaiak plentziarren artean? Oso ona! Gainera, plentziarrek oso parte-hartzaile onak dira ospakizunetan.

Zuotako askok urte asko daramatzazue jaien antolaketa-lanetan. Zelan aldatu dira uda-



San Juan gaueko ospakizunagaz ematen diote hasiera Plentziako jaien uholdeari.

«Taldeak lan izugarria egin behar izaten du jai guztiak antolatzeko. Horretarako, herriko talde, klub eta elkarteek laguntza garrantzitsua da. Horiek gabe ezin izango genuke egiten dugun guztia egitea»

Ierriko jaiak urteotan? Aldatu baino, eguneratu direla esango genuke, bai. Play-back frogak izugarritzko arrakasta du, baita moztarren familien arteko desfileak eta koktelen egunak ere; azken horrek, gainera, garrantzi handia hartu du inguruotan.

Bada, lehengo eta oraingo giroa berdina izaten jarraitzen du? Ez... guztiz ezberdina da!

Zer esango zeniekete herritarrei jaietan parte hartzeko? Bi urtez ezin izan ditugu gure jaiak eta ohiturak ospatu, beraz, gure gomen-dioa edo eskakizuna da egun osoan zehar egongo diren ekintzetan parte hartzea. Hau da, pertsona bakoitzari erakartzen dion ekintzetara soilik joan beharrean, denetan parte hartzea eta jaietara gozatzea. Eta, noski, erresetuz betetako jaiak izatea.

Zer espero duzue aurtengo ospakizunez? Festa lasai, alai eta parte-hartzaileak egitea gustatuko litzaiguke. Erresetuz, jai-giro itzela sortzea, disfrutatzea, denok lekua dugulako gure jaietan. Etorri eta goza ezazue gure herriaz! ▶

Leioa San Bartolome jaiak

San Bartolomeko jaiak hazten ari dira urtez urte

Leioako San Bartolome auzoko festek lau egun hartuko dituzte aurten, abuztuaren 24tik 28ra. Gainera, berritasunakaz datozela iragarri dute antolatzaileek.

Zalantza barik, gogotsu helduko diete aurten San Bartolomeko bizilagunek auzoko jaietara. Aurten, gainera, 2019ko azken festetan baino egun bat gehiago izango dute ederto pasatzeko. Baina ez da oraingo berrikuntza bakarrik izango, jai-batzordeko antolatzaileek kotxe klasikoaren kontzentrazioa ere ari direlako prestatzen abuztuaren 28rako. Egun horretan, «zerbait berezia» egin gura dutela iragarri dute, baina oraindino ez dute azaldu zertan datzan.

Horretaz gain, beste hainbat jarduera prestatu dituzte abuztuaren 24tik 28ra bitartean ederto pasatzeko: umeentzako puzgarriak, tortilla-txapelketa, mozerro-festa, euskal produktuen azoka, marmitako-lehiaketa edo asto-probak, besteak beste. Festei musika jartzeaz arduratuko dira Lisker, Nonbait eta Urrats taldeak. Horietaz gain, Game Off elektrotzaranga eta hainbat dj egongo dira gauak luzatzen.

Abuztuaren 24tik 28ra

Abuztuak 24, eguaztena

- 11:30** Txupinaren jaurtitzea eta jaien hasiera.
- 12:00** Meza eta ohorezko aurrekua.
- 12:45** Nagusientzako otordua.
- 13:00** Igel-toka txapelketa.
- 18:30** Asto-probak.
- 18:30** Puzgarriak.
- 19:30** XV. Tortilla Txapelketaren izen-ematea.
- 21:00** Tortillen aurkezpena eta sari-banaketa.
- 22:30** Kontzertua: Lisker. Ondoren, 04:00ak arte, DJ Txapel.

Abuztuak 26, barikua

- 11:00** Perkusio-tailerra.
- 11:30** Aisia eta abentura kirolak.
- 11:30** Margo-txapelketa.
- 14:30** Margo-txapelketaren sari-banaketa.
- 19:00** Plaza-poteo mozerrotuta.
- 19:00** Elektrotzaranga: Game Off.
- 21:00** Sardina-jan herrikoia
- 23:00** Kontzertua: Nonbait. Ondoren, 04:00ak arte, DJ Gallo.

Abuztuak 27, zapatua

- Goizean zehar Zuzterrak taldea.
- 10:30** Euskal produktuen azoka.
- 11:30** Talo-tailerra.
- 13:00** Kantu-txosneo herrikoia.
- 15:00** Herri-bazkaria, Trikitxox sagardotegi mugikorrakaz.
- 19:30** Euskal dantzak, Simon de Otxandategi Taldeak eskainita.
- 23:00** Kontzertua: Urrats. Ondoren, 04:00ak arte, DJ Maurizia.

Abuztuak 28, domeka

- Goizetik Kotxe klasikoaren kontzentrazioa eta Etxebarria Aita & Semea trikitilarien doinuak.
- 11:00** LV. Marmitako Txapelketa.
- 11:00** Marmitako masterklass.
- 13:30** Apar-jaia.
- 13:30** Lapikoaren aurkezpena
- 18:00** Marmitako-lehiaketako sari-banaketa.
- 18:00** Puzgarriak, plazan.
- 18:30** Asto-probak.
- 20:30** Jaietara agur esateko txokolatada.

Erandio-Leioa Santimamiko jaiak

Santimamiko jai-batzordeak ez ditu aurtengo festak antolatuko

Aurten, Erandio eta Leioa artean dagoen Santimami baselizako jaiak ospatuko badira ere, duela urte batzuk horiek antolatzearen ardura hartu zuen jai-batzordeko kideek zeregin hori utzi dute. Diotenez, 2019an festek Bilboko Aste Nagusiagaz kointziditu zuten, eta ez zen jende nahikoa bertaratu festaren antolakuntza-gastuei aurre egiteko; jai-batzordeko lau kideek jarri behar izan zuten zorraz ordaintzeko dirua. Horretaz gain, ondoko landako



Baseliza udalerrien artean dago.

lur-jabeak hesi bat jarri du; beraz, ez dute lekurik izango jaiak behar bezala antolatzeko.

Hala ere, dena ez dago galduta, beste erandioztar batzuek hartu baitute jaiak prestatzeko ardura, abuztuaren 17an eta 18an, eguaztenean eta egunean. Lehen egunean, kalejira, meza, Leioako txikiteroen abestiak eta nagusientzako mokadutxoa egongo dira. Aldiz, hurrengo egunean, meza, igel-toka eta herri-bazkaria antolatuko dituzte, nahiz eta oraindino ez dituzten ordutegiak finkatu. ◀

Gorliz Aratz Dantza Taldea

«Mundu guztia gonbidatu nahi dugu euskal dantza tradizionalak ezagutzera»

ANDER ZARRAGA ►

Aratz Dantza Taldeak 40 urte bete zituen 2020an, baina pandemia zela eta, ezin izan zuten ospakizunik egin. Hala ere, hobeto egiten dakitena erakusten jarraituko dute Gorlizen ospatzen diren egun seinlatu guztietan. Taldea hobeto ezagutzeko bere partaide aktiboa den Iera Bilbaogaz egon gara.

COVID-19a dela eta, ezin izan zenuten 40. urteurrena ospatu. Aurten zerbait prestatuko duzue? Bai, taldea 1980an sortu zen, eta, horregatik, 2020an urteurren-ospakizunak antolatzen hasi ginen, baina dena bertan behera geratu zen pandemiaren ondorioz. Gainera, momentu honetan, ez gaude jende nahikoa zerbait prestatzeko, beraz, 45. urteurrenaren itxaron beharko dugu. 35. urteurrenean herriko festetako pregoilariak izan ginen eta, aurreko urteurrenetan bezala, horiek behar bezala ospatu ahal izan genituen.

Jende nahikoa ez duzuela diozu, zein da taldearen egoera? Azken urteotan heldu askok dantzatzeari utzi behar izan diote; izan ere, nesken talde oso bat galdu dugu. Horren ondorioz, apur bat kolokan gaude; bizirauten gabiltzala esango nuke. Hala ere, aurtun ume berri asko sartu dira, tartean, 10 mutil berri, eta horiei esker talde berria osatzea lortu dugu. Gainera, oso pozik dabilta, buru-belarri mutilen dantzak entseatzen.



Aurtengo Gorlizko sanpedroetan aritu ziren dantzarien argazkia. ARATZ DANTZA TALDEA



«Herrian euskal kultura sustatzeko eta gure ohiturak mantentzeko jardueretan parte hartzen saiatzen gara»

IERA BILBAO
DANTZARIA, MONITOREA ETA
BATZORDEKO KIDEA

Nolakoa da Aratz Dantza Taldean? Saiatzen gara euskal dantza tradizionalak egiten. Zentzu horretan, ez gara berritzen dutenetakoak. Horretaz gain, lehen, Espainiako Estatuko hainbat lekutara joaten ginen eta atzerriko herrialdeetan ere egon gara, Italian, adibidez. Hala ere, Gorlizen egiten diren ekitaldietan egoten saiatzen gara beti. Gure helburua tradizioak mantentzea eta euskal kultura sustatzea da.

Taldea zabalik dago izena eman gura duen edonorentzat? Bai, noski! Taldearen atea beti daude zabalik etorri nahi dutenentzat. Urrian hasiko ditugu entseguak, eta ordutegia gure sare sozialetan jarriko dugu. Umeak bost urtetik gora etor daitezke, baina edonork parte har dezake, baita gurasoek ere. Mundu guztia gonbidatu nahi dugu euskal dantza tradizionalak ezagutzera etor dadin. ◀

Urezarantzako jaiak Abuztuak 20

Kiroldegian

- 12:00** Puzgarriak.
- 12:30** Aratz taldearen dantzaldia.
- 13:00** Luntxa danontzat trikitiagaz.
- 16:30** Kirola, briska, tute eta tortilla-txapelketak.
- 17:30** II. Tiragoma Txapelketa.
- 19:00** Antzerki-saioa: *UPI!*
- 20:30** Disko Gaua.
- 22:30** Zezensuzkoa.

Okarantxun

- 10:00** L. Sukalki Txapelketa. Barbakoak eta gas-suteak soilik. Artebiondo estratatik sartu eta Txosnako estratatik irten. Udalak antolakuntzarako eta zerbitzuetarako esparruak gorde arte ezin izango da tokirik hartu.
- 12:00** Trikitia.
- 12:00** Ur-irristagarria.
- 13:30** Sukalkien aurkezpena.
- 17:00** L. Sukalki Txapelketaren sari-banaketa.
- 17:30** Erromeria: Ein Go.
- 18:00** Jolasak: zaku-lasterketak, aulkiena, txingak...
- 22:30** Jaien amaiera.

Erando San Agustin jaiak

Altzagako kaleak festaz beteko dira beste behin

Erandioko jaietako azken traka handia Altzagan botako dute, abuztuaren 24tik 28ra bitartean San Agustin jaiak ospatuko baitituzte. Bi urteko etenaldia atzean utzita, hainbat jarduera prestatuko dituzte, eta, ohikoa denez, bertako kuadrillek protagonismo handia izango dute.

Abuztuaren 24tik 28ra

Abuztuak 24, eguaztena

- 12:00** Kuadrillen lehiaketarako izen-ematea, udaletxearen behealdean.
- 12:45** Jaietako zapiaren lehiaketako sari-banaketa.
- 13:00** Txupinazoa udaletxeko balkoitik. Ondoren, erraldoiak eta kilikiak.
- 18:00** Txiki Txupin espaziora botako dute, Txorierrri kaletik.
- 19:30** Kuadrillen aurkezpena.
- 22:00** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 22:00** Diskoteka: Regreso al pasado.

Abuztuak 25, eguena

- 11:00** Puzgarriak egun osoan zhar, Legazpi kalean.
- 18:00** Elektrotzaranga: Game Of.
- 18:00** Sukaldaritz-tailerra, Ausartzenek antolatuta, Europa plazan.
- 19:00** Bilbainadak: Los Chimberos.
- 19:30** Dantza-txokoa, metro geltokiko plazan.
- 20:00** Elektrotzaranga: Distopia.
- 21:00** Gazte-afaria.
- 23:00** Darío Nuñez eta Dj-ak, Irailaren 23a plazan.
- 23:00** Kontzertuak: Pellon Blues eta 4 Villains, Skalon tabernan. Ondoren, Ostikada elektrotzaranga.

Abuztuak 26, barikua

- 11:00** Arrapala.
- 12:00** Paella-txapelketa.
- 13:00** Bits-jaiak, Txorierrin.
- 13:00** Kantu-poteoa Mendibitarte abesbatzagaz, Europa plazatik abiatuta.
- 14:30** Herri-bazkaria.
- 17:00** Olgetan solas, umeentzako jolasak.
- 17:00** Puzgarriak.



Aurten ere, kuadrillek olinpiadak egin beharko dituzte egunez egun.

- 18:30** Erraldoiak eta kilikiak, Guatxoritik.
- 20:30** Play-back txapelketa.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** Kontzertuak: Oxabi eta DJ Gaua, Irailaren 23a plazan.
- 23:00** Kontzertuak: Usuales eta Lion Heart, Skalon tabernan.

Abuztuak 27, zapatua

- 11:30** Puzgarriak eta piñata.
- 12:00** Xake-lehiaketa.
- 12:00** Marmitako-txapelketa.
- 15:00** Gazte-bazkaria.
- 17:00** Puzgarriak.
- 17:30** Mus-txapelketa.
- 19:30** Txitxarrillo.
- 21:30** Kontzertua: Tocando lapolla.
- 22:00** Kontzertua: Sono Local, The Bond Scott Band, eta, bukatzeko, Dj.
- 02:30** Kulero eta galtzontzilo lasterketa.

Abuztuak 28, domeka

- 10:45** Ategorri Txapelketa, futbol-zelaian SD Erandio Clubak antolatuta.
- 11:00** Puzgarriak.
- 12:00** Ur-guda.
- 13:00** Meza.
- 13:00** Ur-zezena, Irailaren 23a plazan.
- 13:30** Ohorezko aurrekua.
- 16:30** Kalejira dantzariakaz, Bokoatik abiatuta.
- 17:00** Kukaña, kaian.
- 19:00** Mariatxiak, Irailaren 23a plazan.
- 19:00** Musika Eskolaren jardura eta kontzertuak: Ultimo Enemigo, Bandidos eta Delisula, Txorierrri kalean.
- 21:30** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 22:00** Agurra eta azken traka.



Erendio Herri Babesa

«Bizilagunei laguntza emateak asebetetzen gaituelako egiten dugu»

Erandioko Herri Babesa eskualdean dagoen bakarra da. Bere kideak boluntarioak dira, eta larrialdi-zerbitzuak batera egiten dute lan beharrezkoa denean. Festetan ere egoten dira, eta aurten, etxera joateko laguntza behar dutenei ere akonpainamendua eskainiko diete.

ANDER ZARRAGA ►

Nortzuk osatzen duzue Erandioko Herri babes-taldea? Une honetan, 15 kide inguru gara. Guztiok dugu gure lana, eta Herri Babesean boluntario moduan aritzen gara gure denbora librean. Bizkaian beste 25 talde inguru daude, baina pandemiara arte jendeak ez gintuen hainbeste ezagutzen; itxialdian egindako lanari esker, jende askok egiten dugun lanaren berri izan du, eta, horren ondorioz, taldean sartzeko eskari asko izan ditugu. Kide berriak beti dira ondo-etorriak; hemen guztientzako lekua dago.

Jaietan etxera laguntzeko zerbitzua eskaintzen hasi zarete. Nola funtzionatzen du? Due-la urte bat hasi ginen festa-giroan zaurgarritasun-egoeran egon daitezkeen neska edo mutilak etxera modu seguruan bueltatzeko laguntza ematen. Pentsatzen badugu gazte bat arrisku-egoera batean egon daitekeela etxera bakarrik doalako, akonpainamendua ematen diogu. Sare sozialetan harremanetarako telefonoa jarri genuen eta, normalean, horrela jartzen dira geugaz harremanetan.

Horretaz gain, zein da egiten duzuen lana? Gure ardurara, batez ere, prebentziozkoa edo lehen interbentziozkoa da. Gu udalerrian kirol-probetan edo jaietan egoten garenez, gainerako larrialdi-taldeak baino

«Iaz, Astrabuduko jaietan neska batzuek etxera joateko laguntza eskatu ziguten norbait segika zutelako eta ez zutelako gura etxera bakarrik joan. Orduan, hor erasoak ekiditeko modu bat zegoela ikusi eta Erandioko Udalaren babesagaz hasi genuen ekimena»

SOFIA BELDARRAIN
ERANDIOKO HERRI BABESEKO
TALDEKO ARDURADUNA

azkarrago heldu gaitzke zerbait gertatzen den lekura, eta hobeto ezagutzen dugu herria, beraz, larrialdi-kasuetan lehen esku-hartzeaz arduratzen gara. Gainerako larrialdietako kideak heltzen direnean beraien aginduetara jartzen gara, eta behar dutenean laguntza ematen diegu. Uholdeak bezalako larrialdi-abisuak dardenean ere gu guardian geratzen gara, edozein egoeratarako prest.

Hurbiltasun-lana egiten duzue beraz? Bai, guk larrialdietako beste zerbitzuei laguntza emateko lan lokalak egiten ditugu; besteak beste, suhiltzaileentzako ur-harguneen egoera kudeatzen dugu edo jende asko pilatzen den egoeratan egoten gara, kirol-jardueretan edo jaietan, adibidez. Horretarako, etengabeko prestakuntza jasotzen dugu, poliziaren, osasun-zerbitzuen eta suhiltzaileen aldetik.

Zergatik erabaki duzue zuen denbora librean Herri Babeseko lanak egitea? Bakoitzak bere arazoak ditu, eta gauza ezberdinengatik mugitzen gara. Nire kasuan, gogobetetze pertsonala da, niri lan honek asko asebetetzen nau pertsona moduan, uste dudalako herriko bizilagunei gehien behar dutenean laguntza emateko aukera eskaintzen didala, eta horrek asko aberasten nau. Gero, bakoitzak bere zergatiak izango ditu, baina nik uste dut hemen gauden gehienok antzeko arazoia egiten dugula lan: hurbileko jendeari laguntza emateko. ◀



Plentzia Sanantolinak

Aurten bai, Madalentxu eta

Abuztuaren 30ean hasiko dira aurtengo sanantolinak. Aurreko zapatuan, aurten herritarrek aukeratutako bikotea aurkeztuko dute.

Alkandora urdina, blusa, zapia eta abarkei bi urtetako hautsa kendu eta plentziarrak itxuroso jantziko dira hiribilduko bikote maitagarriari, Antolintxuri eta Madalentxuri, harrera beroa egiteko; izan ere, abuztuaren 30etik irailaren 4ra bitartean bueltatuko dira aurtengo hiribilduko San Antolin festak.

Ohituraren arabera, Antolintxu Isuskitzako Etxebarritxu baserriko morroia zen, eta urte osoa ematen zuen bertan lanean. Urtean behin, ibaian behera joaten zen Plentziako azokara. Istorioak bertsio asko izango ditu, baina aurtengo konturik garrantzitsuenak bera eta bere bikotekidearen itzulera izango da, bai nagusia baita txikiarena ere.

Pertsonai horiek antzeztzen dituzten herri-tarrak urtero aukeratzen dituzte, nahiz eta 2019tik aldatu gabe dauden. Horretarako, plentziarrek era demokratikoan bozkatuko dituzte hautagaiak hiribilduan zehar jarriko dituzten hautetsontzietan herritar esanguratsuenen izenak sartuz. Lerrook idaztean, aurtengo Plentziako sanantolinetako pertsonaiak ez dituzte aukeratu oraindino, jaien lehen egunaren aurreko zapatuan, aurten, abuztuaren 20an, jakinaraziko baitituzte aurtengo bikoteak.



Antolintxu eta Madalentxuren aurkezpenak

Aurtengo Antolintxu eta Madalentxu

Abuztuaren 20an aurkeztuko dituzte aurtengo bikote aukeratuak, txikiarena eta helduena.

Bitartean, jaiegun horietan egingo dituzten ospakizunen nondik norakoak iragarri dituzte jai-batzordeak eta Udalak, ederto pasatzeko hainbat zeregin antolatu baitituzte. Bikoteari ondo-etorria egin aurretik, gazte bazkariagaz berotuko dituzte motorrak, abuztuaren 30ean, 14:00etan. Ondoren bai, ongie-torria egin, pregoia eta txupina bota, eta hasiera emango diete ospakizunei.

MC
peluquería
ileapaindegia

946 774 147 • Erribera 23 • **PLENTZIA**

LUKIA
Komunikazio Zerbitzuak

944 911 337
688 812 368
lukiakomunikazioa@gmail.com
@lukia_komunikazio_zerbitzuak

Zure proiektuetarako behar duzun guztia
DISEINUA • IKUSENTZUNEZKOAK • MAKETAZIOA • ARGAZKIGINTZA • PUBLIZITATEA

Antolintxu bueltan datoz!



bere egun propioa du hiribilduan, eta Eleiz plazan egin ohi dute.

Jaiek iraungo duten sei egunetan ohitura handiko jarduerak mantenduko dituzte: zezensuzkoa egunero aterako da udaletxe atzeko futbito-zelaian; abuztuaren 30ean, Berbena Zuria egongo da; barrez lehertzeko play-back txapelketak ez dira faltako; eta askotariko musika kontzertuak eskainiko dituzte Ontziola plazan. Irailaren 1ean, erromeria ibiltariak alde zaharra dantzan jarriko du, eta, horren ostean, VII. San Antolin bertso-saioa egingo dute, Eleiz plazan.

Horretaz gain, irailaren 1ean, Eskualdeko Nekazaritza Azokaren 128. edizioa egingo dute; familientzako Arturo Peñaren omenezko herri-krosa ere antolatuko dute irailaren 2an; eta, hurrengo egunean, sukalde inprobisatuz beteko dute hiribildua XLX. Marmitako Lehiaketarako lapiko ederrak prestatzeko. Egun berean, XI. Plentzia Kantari eta Plentzia Kantagunek antolatutako erromeria ere egingo dituzte.

Jaietako azken egunean, umeen eta familien moztorro-lehiaketa egingo dute Ontziola plazan. Hautatuek Urrezko Abarkak jasoko dituzte Madalintxu eta Antolintxuren eskuetatik, hurrengo urtera arte alde egin aurretik. ◀

Abuztuaren 30etik irailaren 4ra

Abuztuak 20, zapatua

- 11:00** Kalejira Plazatxotik eta Erribera kaletik Eleiz plazara.
- 13:00** 2022ko Antolintxu eta Madalintxuren aurkezpena.
- 22:00** Aurreksua eta dantzak.

Abuztuak 30, martitzena

- 14:00** Gazte-bazkaria.
- 17:45** Harrera Antolintxu eta Madalintxuri.
- 18:00** Txupinazoa eta festen hasiera.
- 18:30** Andra Marira igoera eta aurreksua.
- 20:00** Dantza-saioa Itxas Eder taldearen eskutik, Ontziola plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Ontziola plazan.
- 23:00** Berbena Zuria.
- 23:00** Photocall-a, udaletxean.

Abuztuak 31, eguaztena

- 11:00** Diana.
- 11:30** Ginkana Conquis, Legarondon.
- 11:30** Haur-parkea, futbito zelaian.
- 18:00** Nagusientzako arrastia bingo eta briska jokoakaz
- 21:30** Zezensuzkoa, futbito zelaian.
- 22:00** Helduen Playback-lehiaketa.

Irailak 1, eguna

- 09:00** Eskualdeko CXXVIII. Nekazaritza Azoka.
- 10:00** Diana txistulari eta buru-handiakaz.
- 12:00** Euskal jantzi tradizionalen erakusketa Erriberatik.
- 13:30** Erromeria ibiltaria alde zaharretik.
- 19:00** Helduen moztorro-lehiaketa.
- 20:00** VII. San Antolin bertso-saioa, Eleiz plazan: Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus eta Saioa Alkaiza.
- 22:00** Zezensuzkoa, futbito zelaian
- 22:00** Kontzertuak, Ontziola plazan.
- 22:30** Bakarriketa-gaua, Eleiz plazan.

Irailak 2, barikua

- 10:00** Txupinazo eta txistulariak herriko kaleetatik.

- 10:00** III. Plentzia La Gallarda familien arteko herri-krosa, Arturo Peñaren omenez, Plazatxotik hasita.
- 11:30** Antolintxu, Madalintxu eta Udaltzaren kontzentrazioa Ontziola plazan Eleiz plazara igotzeko.
- 12:00** Antolin Deunaren ohorezko meza eta aurreksua.
- 13:30** Musika bandaren kontzertua
- 14:30** Antolin Deunaren koktela, txarangagaz girotua.
- 18:00** Umeentzako berbena.
- 19:00** Elektrotzaranga herritik.
- 22:00** Zezensuzkoam futbito zelaian.
- 22:30** 80. hamarkadako musika.

Irailak 3, zapatua

- 11:00** Diana.
- 10:00** XLX. Marmitako Lehiaketa.
- 13:30** Marmiten aurkezpena.
- 17:00** Marmitako-lehiaketaren sari-banaketa.
- 19:00** Umeen play-back lehiaketa.
- 19:30** Eskupilota-txapelketa, Jai Alai frontoian
- 19:30** XI. Plentzia Kantari kantu-jira, Plazatxotik hasita.
- 22:00** Zezensuzkoa, futbito zelaian.
- 22:30** Plentzia Kantagunek antolatutako erromeria, Eleiz plazan.
- 22:30** Kontzertuak, Ontziola plazan.

Irailak 4, domeka

- 10:00** Diana.
- 10:00** Umeen tortilla- eta entsalada-lehiaketa. Udaletxean eman beharko da izena.
- 12:30** Bits-jaia.
- 13:30** Tortilla- eta entsalada-lehiaketako sari-banaketa.
- 17:30** Umeen eta familien moztorro-lehiaketa, Ontziola plazan. Ondoren, moztorroen sari-banaketa eta Urrezko Abarkak saria ematea; Madalintxu eta Antolintxuren agur-kalejira egin ondoren biak joango dituzte itsasadarrean barrena. Festak, zezensuzkoaren entzierroagaz bukatuko dira.

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA



HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEA

DA INPROBI EN SATZEN

Kirolean esaten da ohiturak hartzeko
21 eguneko praktika behar dela.

EUSKARALDIAN ekingo diogu maratoi
horri baina entrenatzen hasi
behar gara eta **hobekuntza txikiak**
lortzen hasi **uda honetan**.

Gehiago jakin nahi?



getxoztarrak.eus

Bertsolaritza ALBEren udako agenda

Udan ere plazaz plaza arituko dira bertsolariak



Uda honetan, Algortako Bertsolari Eskolak hainbat bertso-saio antolatuko ditu tokiko eta Euskal Herri osoko bertsolari onenenakaz. Hemen dakarzkizuegu irailera bitartean Uribe Kostako herrietan egingo dituzten ekitaldi esanguratsuenak.

Uztailetik irailerako saioak

Uztailak 13, eguaztena

Bertso Jaialdi Mundiala

19:00 | Muxikebarri Antzokian

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jone Uria, Sustrai Colina, Alaia Martin eta Igor Elortza.

Uztailak 26, martitzena

Gorlizko Santiago jaiak

20:00 | Eleiz plazan

Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Andoni Egaña, Maddi Ane Txoperena eta Aitor Etxebarriazarraga. Gai-jartzailea: Beñat Vidal.

Uztailak 29, barikua

Algortako San Inazio jaiak

13:00 | Algortako Kasinoko plazan

Bertsolariak: June Diaz, Imanol Uria, Ekhiñe Zapiain eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Beñat Vidal.

Uztailak 30, zapatua

Algortako San Inazio jaiak

13:00 | Algortako Kasinoko plazan

Bertsolariak: Uxue Alberdi, Paule Loizaga, Unai Iturriaga eta zehazteko dagoen laugarren bertsolaria. Gai-jartzailea: Jon Amezaga.



Uria eta Egaña bertsolariak. ALBE

Uztailak 31, domeka

Bertso Maratoia

13:00 | Algortako Kasinoko plazan

Bertsolariak: Aitor Sarriegi, Etxahun Lekue, Jone Uria eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Maider Barañano

Abuztuak 4, eguena

Itzulbatzeta/Romoko jaiak

21:00 | Txosna-gunetik abiatuta

Bertsolariak: Unai Mendiburu eta Nerea Ibarzabal.

Abuztuak 12, barikua

Portu Zaharreko jaiak

19:30 | Portuko plazan

Bertsolariak: Jone Uria eta Joanes Illarregi.

Abuztuak 12, barikua

Gorlizko Balkoirik Balkoira

20:00 | Gorlizko Itsasbidetik abiatuta

Bertsolariak: Julio Soto eta Onintza Enbeita.

Abuztuak 14, domeka

Portu Zaharreko jaiak

18:00 | Portuko plazan

Marmitako Lehiaketaren eguneko bertso-saioa. Bertsolariak: Mikel Arrate, Naroa Torralba eta Asier Alcedo.

Abuztuak 27, zapatua

Erandioko jaiak

19:00 | Altzagako malekoian

Bertsolariak zehazteke daude.

Irailak 18, domeka

Hitzaren Dantza

11:00 | Algortako kaleetan

Egun osoko ekitaldia, bertsoa, musika eta dantza biltzen dituena. Bertsolaria: Jon Maia, Peio Lago, Oihana Iguaran.



Udan ere,
zure bidelagun

aek
euskara praktikoa

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailan.

Leioa: 944 6460 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/

673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus



Urduliz Andra Mariko jaiak

Udari zuku guztia ateratzek

Irailaren 7tik 24ra

Irailak 7, eguaztena

- 19:00** Txupina jaurtitzea eta pregoiaren irakurketa Kuadrilla Radio Patioreen eskutik, udaletxean. Ondoren, Kakarraldoren jaitsiera herritik Landaraino.
- 20:00** Herrian zendutakoen omenezko meza.
- 20:30** Pote bakoitzagaz txistorra doan, txosna-gunean.
- 20:30** Kuadrillen aurkezpena.
- 22:00** Zezensuzkoa.

Irailak 8, eguena

- 10:00** Kalejira txistulariek alaituta.
- 11:00** Meza nagusia.
- 11:45** Ohorezko aureskua, eliza aurrean.
- 12:00** Herri-kirolak, Landan.
- 16:00** XXXIII. Andra Mari Txirrindularitza Sari Nagusia, 23 urtez azpikoak.
- 17:45** Txirrindularitza-lasterketako sari-banaketa, Landan.
- 18:00** Kuadrillentzako jolasak, Landan.
- 20:30** Bilbainadak: Puro Relajo, Landan.
- 22:00** Zezensuzkoa, txosna-gunean.
- 22:00** Suziriak, Landan.
- 22:30** Ikuskizuna: Las Fellini, Landan.

Irailak 9, barikua

- 18:00** Elektrotxaranga.
- 20:30** Kuadrillentzako play-back lehiaketa.

- 22:00** Zezensuzkoa, txosna-gunean.
- 00:00** Kontzertua: Oxabi taldearen erromeria, Landan.

Irailak 10, zapatua

- 12:00-15:00** Tren txu-txu, Landan.
- 12:00** Kuadrillentzako ginkana.
- 14:00** Landaraino igoera trikitilariakaz.
- 14:30** Herri-bazkaria, Landan. Txartelak salgai Azkena eta Txiberri tabernetan.
- 15:00** Bazkarira doazen umeentzako animazioa.
- 18:00** Kuadrillen arteko futbolin-txapelketa.
- 22:45** Zezensuzkoa, txosna-gunean.
- 23:00-02:30** Kontzertua: Tributo taldea, Landan.

Irailak 11, domeka

- 11:00** Umeentzako parkea, Landan.
- 17:00** Goitiberen jaitsiera Ondoren, Erdi Kilometro igoera.
- 19:00** Mountain Bike erakustaldia.

Irailak 16, barikua

- 17:30** Txinbera- eta tiragoma-txapelketak, Elortzan.
- 19:30** Urduliz Eskubalo Taldearen aurkezpena, Iparralde kiroldegian.
- 20:00** Street Basket, Elortzan. Izen-ematea 19:30ean.
- 22:00** Zezensuzkoa, txosna-gunean.

- 23:00** Kontzertua: Esne Beltza.

Irailak 17, zapatua

- 10:00** Kalejira txistulariek alaituta.
- 11:00** Umeentzako parkea, Elortzan.
- 13:00** Iratxo Gorria Dantza Taldearen emanaldia, udaletxeko plazan. Ondoren, Iparraldeko herri-kirolak.
- 13:30** Bits-jaia, Landan.
- 16:30** Mozorro-lehiaketan izena ematea.
- 17:00** Mozorro-lehiaketa, Elortzan.
- 17:00** Afizionatuen eta profesionalen pala-partidak, Iparralde kiroldegian.
- 19:00** Umeentzako txalaparta-tailerra, Elortzan.
- 20:00** Sardina-jana, udaletxeko plazan.
- 21:00** Kale-ikuskizuna.
- 23:00** Kontzertua: Modus Operandi, Elortzan.

Irailak 18, domeka

- 12:00** Auto zaharren erakusketa, udaletxeko plazan.
- 16:00** Mus-txapelketa, Lau Bide jatetxean.
- 18:00** Umeentzako jarduerak eta jaien bukaera.

Irailak 24, zapatua

- 09:00** Urdulizko VII. Herri Ibilaldia, udaletxeko plazatik hasita. 10:00etan umeen martxa.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala ekimen gehiagoren berri emango da HIRUKA.eus-en.



TXOZNA JATETXEA

Torre Barri bidea, 3, Urduliz

94 676 34 71/645 77 68 23

txozna@gmail.com
www.restaurantetxozna.es

o azken txanpa

Kakarraldok berriz ere egingo du Urdulizko udaletxetik Landarainoko bidea. Hori jaien lehen aste-akabuan izango da; bigarren, festa Elortzara mugituko dute.



Kakarraldok jaiak iragartzeko ardura izango du festen lehen orduetan.

I railaren 7an hasiko dira 2022ko Urdulizko andamariak. Udaletxean txupina bota eta pregoia irakurri ondoren, herriko kuadrillek jaitiera egingo dute Andra Mari elizaren ondoko Landara, bertan egingo baitituzte festetako lehen aste-akabuko jarduera gehienak. Egun horretan, jantzi tradizionalakaz bertaratzeko eskatu du jai-batzordeak, baserritarrez zein arrantzalez.

Behar bezalako atsedena hartu ostean, bigarren aste-akabuan Elor-

tzara eramango dituzte ospakizunak, irailaren 16tik aurrera.


Guztira, urduliztarrek 10 eguneko egitaraua izango dute ondo baino hobeto pasatzeko hamaika aukeragaz. Egun horietan, ez dira faltako musika, jana, umeentzako jarduerak edo askotariko ikuskitunak. Tartean, hainbat kirol-jarduera ere egingo dituzte, hala nola txirrindularitza-lasterketa, Urduliz Eskubaloia Taldearen aurkezpena, saskibaloia edota irailaren 24an egingo duten herri-ibilaldia. ◀

Jaiak Irailera begira

Falta diren jaiiez ez gara ahaztu, eta denak ekarri gura dizkizuegu

U dako jaiak ez dira hemen bukatzen. Orriotara uztailearen erdialdetik irailaren hasierara Uribe Kostan ospatuko diren festa nagusiak ekarri ditugu, baina irailean ere, eskualdeko hainbat udalerritako auzoen jaiak izango dira. Ez gara horietaz ahaztu, eta hurrengo HIRUKA aldizkarian tarte bat egingo diegu. Bestela, HIRUKA.EUS webgunean ere 2022ko udako jaien atal berezia dugu martxan, aldizkari honetan agertzen diren festen egitarauak zuzen partekatzeke, eta, tartean, festek utzitako bideoak, argazki-galeriak eta gertaera esanguratsuenak ere bertan ikusi ahal izateko. Horretaz gain, atari horretan, orriotara ekarri ez ditugun jaien zein behin betiko egitarauen berri emango dugu, adi egon beraz! ◀

Besteak beste, irailean Udondoko jaiak ospatuko dira.



TXIBERRI
edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisaugaragardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 • URDULIZ • 946.760.715

Uribe Kostako mugimendu feministako zenbait talde Udako jaien harira

«Jaiak guztiontzat seguru, dira, ala ez dira izango. Era

Jaiak bueltan dira gure herrietara, eta, horiekin batera, tamalez, jai giroan areagotzen diren eraso matxistak. Uribe Kostan antolatuta gauden hainbat talde feministetatik egoerari erreparatu nahi izan diogu.

URIBE KOSTAKO MUGIMENDU FEMINISTA ►

Jai herrikoiak ospakizunerako eta gozatze-ko une eta guneak dira, baina ezin ditugu guztiok berdin bizi. Mugimendu feministatik pozik hartzen ditugu gure herrieta-ko jaiak, baina arduraz ere begiratzen diegu. Izan ere, pandemiak aisialdia eta ospakizunak ia bi urtez mugatu ostean, jendeak festagose ikaragarria du, eta, beraz, *desfasea* ere bikoitza izan daiteke, komunitate bezala mugarik eta bitartekorik jarri ezean.

Jaietan, dena libre den aitazkiapean, eraso matxisten ofentsiba eta gorakada nabaria da: begiradak, irainak, ukituak, gutxiespenak, bortxaketak, eraillketak... Ezin ditugu, ordea, eraso horiek fenomeno anekdotiko eta isolatu gisa ulertu; indarkeria matxista arazo sistemiko-estrukturala baita. Hartara, indarkeriarik gabeko testuinguruak eta giroak sortzea jarri behar dugu erdigunean.

Lamiakon, Leioan, Sopelan... hainbat izan dira gure inguruetako jaiak hasi berritan geratatu diren erasoak.

Tamalez, lerrook idazterakoan, udako jaien zikloa hasi besterik ez da egin eta jada zenbait herritan erasoak eman gertatu dira. Salatu gabeko asko eta asko izango dira, ziurrenik, garrantzia kendu zaielako edo eraso gisa identifikatu ez direlako, besterik gabe. Portaera jakin batzuk normaltzat ditugunez, sarritan, ez zaizkigu bortitzak iruditzen. Portaera horien eraginez, hain zuzen, sortzen dira hegemonikoak ez diren sexu- eta genero-identitateen kontrako jazarpena ahalbidetzen dituzten testuinguruak, onargarri egiteraino.

Are gehiago, alkohola, drogak edo gaua bezalako elementuak erasotzaileen jarrereri larritasuna kentzeko erabili ohi dira, eta horrela, sarritan, erasoak jasan dutenen salaketei legitimitatea kentzen zaie.



Jai herrikoetan, tamalez, askotariko eraso matxistak jazo dira urtez urte, eta,

Jaietan aktiboki parte hartzen dugun eragile eta erakunde guztiek eraso matxistak kudeatzeko protokolo bat izaten dugu helduleku, erantzun irmo eta kolektiboa emateko.

Egoera horren aurrean, erasoei aurre egiteko eta, are gehiago, horiei aurrea hartzeko tresnak sortzen ari gara, baita ekimen ugari pentsatzen eta antolatzen ere.

Jaietan aktiboki parte hartzen dugun eragile eta erakunde guztiek eraso matxistak kudeatzeko protokolo bat izaten dugu helduleku. Modu horretan, erantzun irmo eta kolektiboa emateko oinarri sendoa dugu. Protokoloak fintzen ari gara herriz herri, eta ahalik eta sektore gehienekin lantzen: jai batzordeekin, txosna batzordeekin, parte hartzaile diren kuadrillekin... Protokoloa mugimendu feministatik sortzen dugu, baina berebizikoa da jaien parte diren guzti-guztiek bere egitea.

Prebentziotik lan handia hartzen dugu, horretara bideratzen ditugu indar gehienak,

aske eta gozagarri izango ntzukizuna denona da»



aurten, festak hasi berritan, hainbat eraso izan dira eskualdean.



Erasoei aurre egiteko, protokoloak jarri dituzte martxan herriz herri eta auzoz auzo.

horretan ari gara etengabe, urte osoan zehar. Baina, aizue, jaiak guk ere gozatzeko modukoak izan behar dira, eta, horretarako, gure egitarau eta ekintza propioak sortzen ari gara jaietan. Hori bai, erasotzen bagaituzte, ez gara geldi eta isilik geratuko; antolakuntza eta autodefentsa feministaz erantzungo dugu. Eta inork ez gaitzala zalantzan jarri egokitzen zaigun biktimaren paper pasibotik atera eta geure buruak defendatzeagatik. Gorputza ere politikoa delako. Erasoen aurrean erantzun bat ematea zilegi delako. Gure gorputzak eta bizitzak dira jokoan daudenak.

Bestelako jai eredu baten alde urteak eta urteak daramatzagu lanean, mugimendu feministatik zein herrietako beste eragile eta jai batzordeekin batera.

Guztionez segurua, askea eta gozagarria den jai eredu batekiko hautua egiten dugu, eta hori horrela izan dadin, erantzukizuna denona da.

Jai herrikoiak auzolanean komunitatea indartzeko tresna ezinbestekoa dira, eta horiek antolatzen eta bultzatzen jarraituko dugu. Are gehiago, jai herrikoiek eraldaketa sozialerako bide eman dezakete. Baina beharrezkoa da jai ereduari buelta bat eman eta ikuspegi feminista batetik lantzea. Guztionez segurua, askea eta gozagarria izango den jai eredu batekiko hautua egiten dugu, eta, hori horrela izan dadin, erantzukizuna denona da. Gune seguru eta giro sana bermatzea denon esku dago, ez soilik norbere jarrerari begira, baita ingurua eta ingurukoengan eraginez ere. Komunitate gisa, erabili dezagun jaietako indar sortzailea eredu askatzaileak praktikara eramateko eta nahi ditugun herri eta harreman ereduak eraikitzeko. ◀

Dana prest sukaldaritzan treba

Paella | Arroza abakandoagaz



Osagaiak: 400 gramo arroz, 2 abakando, tomate erdi birrindua, piperrauts gozoa, elikagai-koloreztatzailea, azafraia, txakolina, oliba-olio birjin estra, gatz, baratzuria eta 1/4 litro itsaski-salda.

Udako txapelketa gastronomikoetan, tipikoetan tipikoena da paella-lehiaketa. Eskualdeko hainbat tokitan egiten da, eta, hori dela-eta, Algortako Portu Zaharreko Arraun jatetxeokoei aldaera gozagarri bat egiteko errezeta ekarri digute lerrootara. Abakondoak olio beroan markatuko ditugu, gatz pixka bat gehituz. Baratzuria xaflatan moztu eta paella-ontzian gorritu, erre barik. Piperrautsa eta koloreztatzailea gehitu eta, berehala, tomate birrindua bota. Segituan, txakolina eta azafraia gehitu, murriztu arte. Orduan, arroza bota, erregosi eta aurretik berotutako itsaski-salda gehitu. Sua gogor jarri beharko dugu une horretan, eta, irakiten hasten denetik, 14 minutuz kozinatuko dugu, ura lurrundu eta hondoa karamelatuta egon arte. Amaitzeko, 4 minutu gelditzen direnean, aldeztu aurretik markatutako abakondoak gehituko ditugu. Ondoren, sutik atera, eta zerbitzatzeko prest izango dugu mokadu eder hau.

Bakailaoa | «Arraun» erara



Osagaiak: 2 piper morroi, 2 patata, 4 bakailao solomo, 300 ml oliba-olioa, 2 koilarakada xerez ospina, txakolina, 2 baratzuri, pipermin gorria, kipula erdia eta perrexila.

Kostaldekoko eskualdea izanik, bakailaoa prestatzeko hamaika modu ditugu inguruotan: pil-pil eta bizkaitar erara, besteak beste. Jaietan ere halakoak nork prestatzen dituen hobekien jakiteko norgehiagokak egon ohi dira gurean, eta, kontuak horrela, errezeta paregabea partekatu dute Algortako Portu Zaharreko Arraun jatetxeokoei ere. Hasteko, piperrak erre, tiretan moztu eta kazolan egosi oliba-olioa eta baratzuriakaz. Bitartean, patatak okin estiloan prestatuko ditugu, kipula eta oliba-olioagaz konfitatuta. Baratzuria xaflatan moztu eta ozpin-olioa egingo dugu pipermin gorria, olio, txakolina eta perrexilagaz. Ondoren, bakailaoa txingarretan jarriko dugu; haragiaren zatitik aurretik, 2-3 minutuz, eta gero buelta eman beste 2-3 minutuz. Gomendioa: saiatu azala txigortuta geratzeko, baina ez erreta. Lauzak ondo irekitzen direla ikusten dugunean, sutik kendu eta ozpin-olioa gehituko diogu patata eta piperrakaz.



tzeko?

Jaietan, festa eta parrandaz gainera, jan-edanak bereziki garrantzitsuak dira gurean. Izan ere, sardina- eta saiheski-jan tipikoez aparte, nork bere abilezia gastronomikoak erakusteko hamaika txapelketa egoten dira; hona errezeta batzuk.

Marmitakoa



Osagaiak: 400 gramo atun, tomate-saltsa, tipula bat, piper morroi bat, 4 patata, 2 piper berde, 2 berakatz, 2 azenario, porru bat, uretan beraturiko 2 piper txorizeroen mamia, perrexila eta gatza.

Salda egiteko, kazola batean, bi koilarakada oliotan atunaren hezurak eta azalak su bizian eztitu eta barazkiak gehitu, berakatz zuritu bategaz. Urez ondo estali eta 15 minutuz eduki irakiten. Ondoren, iragazi eta gorde. Ostean, piperrak eta tipulak ondo pikatu eta su eztian jarri, olio koilarakada bigaz. Beste berakatz txikitu eta erantsi, eta ondo eragin guztiari. Apur bat eginda dagoenean, patata zatitua eta gatza bota. Hamar minuturen buruan, tomate-saltsa erantsi eta beste minutu batzuk horretan eduki guztia ondo nahastuz. Jarraian, aurretik egindako saltsagaz patatak estaliko ditugu, gatza bota eta su eztian mantendu, 10 minutuz, patatak puntuan eta xamur egon arte. Bukatzeko, zartagin batean bi koilarakada olio ipini eta, bero dagoenean, dadoetan moztutako atuna salteatu. Bizkor ibili arraina ez lehortzeko. Atuna puntuan dagoenean, patata saldan irauli, gatz puntua neurtu, eta perrexilagaz hautseztatu.

Txipiroiak | Bere tintan



Osagaiak: 30 txipiroi txiki beren garro eta hegalakaz, 6 tipulin, piper berde bat, 2 berakatz, oliba olio, ardo zuria, tomate-saltsa, litro erdi ur bero, txipiroi-tinta eta gatza.

Lehenik, txipiroiak kontu handiz garbitu –tinta-poltsak ez apurtzeko–; horiek edalontzi batean gorde ur apur bategaz. Garroak eta hegalak gorputzetik bereizi eta pikatu. Ondoren, kazola batean, olio koilarakada bi jarri, bota bi tipulin eta gatz pixka bat. Bigun dagoenean, sua bizitu eta garro eta hegal pikatuak bota. 15 minutu eduki salteatzen, eta, gero, hozten utzi. Txipiroien barrua nahastura horregaz bete eta zotzakaz itxiko ditugu, jarraian itsasten ez den zartagin batean olio tanta eta gatz apur bategaz salteatzeko. Kazola batean, hiru olio-koilarakadatan piper berdea, berakatz eta tipulinak eztitu, su baxuan. 40 minuturen buruan, ondo maneaututa daudenean, bota ardo zuria eta murritz; ondoren, tomate-saltsa, ur beroa eta tinta gehitu, eta beste 30 minutu eduki egozten. Dena xehatu eta saltsa eta txipiroiak kazola batean jarri su eztian, 30 minutuz, xamur geratu arte. Gatz puntua neurtu eta ur pixka bat erantsi saltsa lodiegi badago.



**Leioa-Unbe errepeidea, 32
48950 ERANDIO
944 670 768**

Motabarri


Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



EKAINEN
SOLUZIOAK




Dominoan

Bete itzazu lauki zuriak, domino-zati honek zentzua izan dezan.


Zorri hiztunak

Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan ari dira, baina zer diote? Erabili hizki-marrazki alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA






Badonk 13

Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.



Itxaspean

Marraztu eta koloreztatu itxaspean topa ditzazkegun animali eta landareak.



URDAIBAI
BIRD CENTER

✦ ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES

HEGAZTIEN NAZIOARTEKO AIREPORTUA



**URDAIBAI BIRD
CENTERRA
BISITA EZAZU!**

HIRUKAlagun
eta **bazkideen** artean

6 BONO BIKOITZ
zozkatuko ditugu!

(sei heldu eta sei umeentzako)

Itxaski festa

Elementu hauetatik guztietatik bat zortzi aldiz ageri da eta beste elementu bat soilik behin. Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?



Sarrera biko zozketak

Donostiako Aquarium eta Urdaibai Bird Center-erako

Sariak



Zozketan parte hartu gura baduzu, abuztuaren 18a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete **Zozketak** ataleko formularioa.

ZAINDU

ERRESPETATU

MAITATU

Egunero irekita
Abierto Todos los días

www.aquariumss.com

AQUARIUM IBIAKITA - SAN SEBASTIAN

EUSKADIKO LANDA OSTATUAK



Nekaturrek eskeintzen dizu:

- Erreserben doako kudeaketa (logelak, apartamenduak, etxe osoak)
- Opari bonu eta txkeen salmenta
- Eskaintza eta Deskontuak Euskadiko erakunde turistikoetan
- Turismo edo/eta lan bidaietarako ostatuak
- Enpresa bileretarako edo opari bezala
- Eta askoz gehiago...

EUSKADI

943 32 70 90



www.nekatur.net